

## Kirola

Urtebete ia jokatu gabe egon ostean, bolada onean dago Xabier Etxeita Athleticen jokalaria > 17

## Durangoko udal zorraren gaineko txostena egin dezala eskatu dio gobernu taldeak Aldundiari

Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEK kanpoko azterketa eskatu zuten mozio bidez. EAJk Aldundiari eskatu dio ikuskaritza egitea

Bizkaiko Foru Aldundiak aztertuko du Durangoko Udalaren egoera ekonomikoa. Horrela jakinarazi zuen Aitziber Irigoras alkateak martitzenean emandako prentsaurrekoan. Ageraldian azpimarratu zuen udalak ez duela zor bizirik, ezta

defizitik ere. Aurretik, EH Bilduk 2013ko kontu orokorrari helegitea ipini zion, eta udalak 7,9 milioi euroko zorra duela adierazi zuen. Iraileko udalbatzarrean, berriz, koalizioak eta PSE-EEK kanpo azterketa eskatzeko mozioa onartu zuten. > 3

## Gazteek Correosen bildu gura dute

'Baguez gure espazio bile' dinamika aurkeztu dute hainbat gaztek udaletxe aurrean. Asanbladetan bildu eta gero, espazio baten beharra nabarmendu dute, eta Correosen eraikin zaharra gazteentzako gune izan dadila eskatu diote udalari. > 2



PAKO ARISTI  
urari ostutako poemak

DOAN

**PAKO ARISTIREN POESIA ERREZITALDIA**  
Datorren ostegunean, azaroak 6, 19:00etan.

Susa

**hitz** artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

A. Urreta  
podóloga

**Ainara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,  
10, behea - 48200  
DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/06

### Mallabia > 7

Kanpandorreko obretan tximistorratza eta erlojuak konponduko dituzte

### Iurreta > 9

Ur Partzuegoaren ur homidura Orozketa auzora heldu da

### Mañaria > 8

Plan Orokorrari buruzko galdeketa azaroaren 21 eta 23an

### Abadiño > 8

Trafikoko hainbat tramite udaletxean egin ahalko dira

**Herririk herri****Correosen eraikin zaharra gazteen espazio izan dadila eskatu dute**

'Baguez gure espazio bile' dinamika aurkeztu dute hainbat gaztek, eta udalari espazio bat eskatu diote; zehazki, Correosen eraikina ikusten dute egokien



Joan zen egunean, udaletxe aurrean, gazteek egindako aurkezpena.

**DURANGO** Markel Onaindia "Gazte gera gazte, eta ez gaude konforme!", dio kantuak. Durangon ere asko ez ei daude konforme. *Baguez gure espazio bile* dinamika aurkeztu zuten 40 bat gaztek joan zen egunean, udaletxe aurreko plazan. Gazteen premiak asetzeko herrian espazio bat behar dela adierazi zuten, eta alkateari eskaera zuzena egin zioten. Udaletxe parean dagoen Correosen eraikin zaharra gazteentzako gune izatea gura dute. Barikuan eskaera ofiziala sartu zuten udaletxean.

Gazteek diote asanbladetan batu izan direla, eta ondorio batera heldu direla: espazio bat behar dute harremamak izateko, aisialdi kulturalerako eta proiektuak garatzeko, adibidez. Sentsibiltate eta iritzirik askotako gazte taldea dela esan dute, eta ia 100 gaztek parte hartu dutela batzarretan. Premiak identifikatuta, ideiarri forma ematen hasi dira. Auzolanean eta era kolektiboan sortu gura dute eremu berria, eta "kontrolatu edo mugatuko duen erakunderik barrik". Erabilera askotariko gelak

jasoko dituen gune bat gura dute. "Kulturaren ikuspegi zabala bultzatu gura dugu, pertsonen eta taldeen ahalmen soziala eta sortzailea sustatzeko". Gainera, aukera berdintasunean eta euskararen aldeko "konpromiso argiagaz" eraiki nahi dute. He-

rritarrekiko "harreman sanoa" edukitzeko konpromisoa hartu dute, baita "espazio hori egoera onean mantentzeko" ere.

Gazteen arabera, hainbat leku publiko aztertzen ibili dira, eta Correosen eraikin zaharra iruditu zaie egokiena. "Tamai-

na egokia, kokaleku zentrikoa eta jabetza publikokoa izatea, eta urte askoan erabilera aktiborik eduki ez izana" dira aukera hori egitera eroan dituzten ezaugarriak. Eskaera egin diote Aitziber Irigoras alkateari, eta abendura bitartean batzartzeko deia egin diote, "komunikazio zuzenagoa mantentzeko".

**Alderdiek, jarrera ugari**

EAJk adierazi du gazteen eskaera udalean landuko dutela: "Gobernu taldearen aldetik eskaera guztiak ondo jasotzen dira. Kasu honetan gai hau Hirigintza Batzordera eramango da, eta, horrela, alderdi politiko guztiak proposamena ezagutzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute".

EH Bilduk jarrera argia erakutsi du, eta gazteen eskaera bidezkoa dela uste du: "Durangoko gazteek ez dute espaziorik beraien beharriak asetzeko eta garatzeko, eta udalak ez die eskaintzarik egiten. Udalak ez du adin tarte bateko gazteentzat proposamenik egiten, ez du gazteei zuzendutako politikarik". Bestalde, eskola publikoak asteburuetan zabaltzea proposatu izan du koalizioak, baina ezezkoa jaso du. PSE-EEk, eraikin

baten inguruko eztabaidaren aurretik, beste gabezia bat ikusten du: "Gazteen eta udalaren artean landutako gazte plan bat behar du Durangok, aisialdirako programak zehazteko eta udal instalazioak erabiltzeko".


PPren ustez, gazte horiek ez dute gazte populazio osoa ordezkatzeko. Bestalde, argitu du udala bi urtez dabilela eraikin horretan zer egin aztertzen. "Hainbat aukera daude, eta hau beste bat litzateke. Hiru solairu daukanez, solairu bakoitza hainbat ekintzatarako erabili ahal da". Gainera, guztiz hutsik ere ez dagoela esan du.

**Gaztetxearen osasuna**

Dinamikaren sustatzaileek esan dute proiektua Sapuetxe gaztetxetik apartekoa dela. Hamabost urte daroaz bizirik Montevideo kaleko eraikin okupatuak, eta gaur egun bertan dauden gazteek aitortu dute ez dagoela osasun onean. Baina espazioa aurrerantzean ere erabilgarria dela diote. "Proiektuari buelta bat eman gura diogu", esan du Sapuetxeko kide batek. Bestalde, proiektu berria babestu du: "Salesen komentuko okupatzaileek eduki zuten eran, gazteek gure laguntza edukiko dute".

**INKESTAK****Ane Gabilondo 19 urte**

Nik uste dut gazteek interes eta behar batzuk daukagula, eta ez daukagula lekurik horiek aurrera eramateko. Durangon bizi gara, eta gazteek ez dugu elkar ezagutzen. Bakoitza bere lokalean sartuta edo tabernetan egoten da, kuadrillaka antolatuta, eta ez dakigu besteek zer pentsatzen duten.

**Markel Sánchez 23 urte**

Beharrezkoa da, batez ere, herri mugimenduan dabilen gazteek eta kultur mailan mugitzen diren gazte guztiak azpiegitura bat eduki dezaten. Izan ere, arazo handi bat da non batu edo gauzak non sortu ez edukitzea. Gainera, espazioak balio dezake horretan ez dabilen jendea zerbaitetan hasteko.

**Luisa Oleaga 20 urte**

Interesgarria da gazteen arteko komunikazioa bultzatzeko, eta tabernetara bakarrik ez mugatzeko. Beste kuadrilla batzuetako jendea ezagutzeko erraztu ahal dizugu, eta antzeko interesak edukiz gero, ekintza kulturalak elkarrekin egitea. Autogestionatua izateak dakarren inplikazioa ere garrantzitsua da.

**Elene Landia 19 urte**

Nik uste dut gure proiektuak aurrera eramateko leku bat behar dugula. Eta, gazteentzat bakarrik ez, herri osoarentzat ikusten dut beharrezko. Jende nagusiagaz edo etorkinekin harremana edukitzeko eta ikasteko, adibidez. Horrek asko aberastu ahal zaitu, eta estereotipoak apurtzeko ere balio dezake.

**Laguntzaileak:**

**BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia**  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko urriaren 31,  
12. urtea - 564. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes, Lehior Elorriaga.

# Eztabaida eta gero, udal zorraren inguruko kanpoko txostena egingo du Aldundiak

Alkateak egin dio eskaera Aldundiari, oposizioak kanpoko txosten bat egiteko eskatu eta gero

**DURANGO** M. Onaindia Bizkaiko Foru Aldundiak udaleko egoera ekonomikoaren eta zorraren inguruko txostena

egin du. EH Bilduk (Bildu eta Aralar) 2013ko kontu orokorrari helegitea ipini zion, eta salatu zuen udalak 7,9 milioi euroko

zorria daukala. Gero, iraileko udalbatzarrean, koalizioak eta PSE-EEk kanpoko azterketa bat egiteko eskatu zuten. Bada, Ai-

tziber Irigoras alkateak eskaera egin dio Aldundiari, eta azterketa egingo dutela baieztatu du, alkateak aurreratu duenez.

Edozelan ere, bere iritzia eman gura izan du Irigorasek prentsaren aurrean: "Udal honek ez dauka zor bizirik, ezta defizitrik ere". 7,9 milioi euroko zorria kontu hartzailearen txosten ofizial batean agertzen da, baina "zorria" eta "zor bizia" desberdindu gura izan ditu. Zor bakarra, Aldundiaren menpeko Azpiegitura erakundeagaz daukatena, Landako erakustazokatik sortutakoa dela esan du. Diru hori bueltatzen dabilzala esan du, eta horregatik ez dela zor bizia. Hala ere, duela hilabete eginiko prentsaurrekoan aitortu zuen zor hori atzeratu egin

dutela, dirua beste arlo batzuetan erabiltzeko; 2,6 milioi euro inguru falta dira ordaintzeko.

Bestalde, EH Bilduk zabaldu zuen kreditua eskatu zela oraindik garatu gabeko egitasmo batzuetarako, eta zor moduan zenbatu beharrean, soberakin moduan hartu zela. Irigorasen berbetan, kreditu bi dauzkate, baina, ez dituztenez erabili, ez dituzte zor moduan hartzen.

**Zalantza eta dokumentuak** Espainia mailako erradiografia egiten duen agiri bat erakutsi du Irigorasek, informazioa babesteko. Horren arabera, zorria daukaten udalen sailkapenean, Durango seigarrena da azkenetik hasita. Udal kontuez "zalantza" sortu dela esan du, baina hori "asmo txarrekoa eta artifiziala" dela uste du, eta EH Bilduri egozti dio horren ardura.

Eustaten datuak eskuan, EH Bilduk esan du biztanleko 266 euroko zor bizia duela udalak, eta, populazio osora hedatuz gero, salatutako zorria dakarrela.



Aitziber Irigoras alkatea, prentsaurrekoan, Aldundiari eginiko eskaera azaltzen.

## 1936ko altxamendu faxista sufritu zutenak gogoan

Fuentesek Argentinako prozesuaz hitz egin zuen

**DURANGO** Jone Guenetxea Ehunka lagun bildu ziren joan zen barikuan, Durango 1936 kultur elkarteak antolatutako Agurrik Gabeak ekitaldian. Tronperriko kideek lore eskaintza egin zuten, Kurutzian, iaz, memoria historikoaren harira

inauguratutako eskulturaren inguruan. Jarraian, Luis Fuentes CNTko kideak Argentinan martxan jarritako frankismoaren krimenen kontrako prozesuari buruz berba egin zuen, esaterako. Durangaldeko musikariek girotu zuten iluntzea.



Agurrik Gabeak ekitaldiaren zazpigarren edizioa izan da aurtengoa.

## EHEren 35. urtemugaren harira, tertulia egingo dute

**DURANGO** M.O. Mahai ingurua antolatu du Euskal Herrian Euskarazek martitzenerako, euskararen normalizazioaren geroaz hausnartzeko. Izan ere, 1979ko azaroaren 4an sinatu zuten EHEren sortze agiria, eta ekitaldi hori Durangon izan zen. Efemeridea aprobe-

txatuta, euskararen normalizazio prozesuan jarduten duten ahotsak batu nahi izan ditu eragileak.

19:00etan hasiko da mahai ingurua, San Agustin kultur-gunean. Iñaki Petxarroman *Berriako* kazetariak zuzenduko du, eta partaideak hurrengoak izango dira: Kontseiluko Paul Bilbao, Uemako Maren Belastegi eta Gotzon Barandiaran kultur-gilea. Hirurek euskararen normalizazioaren geroaz duten ikuspegia zabaltzea da EHEren helburua.

**0% MERKATARITZA** **BIZIA**

**100% MERKATARITZA** **BIZIA**

**>>> Ikusten duzu aldea? Zure esku ere badago ZURE SALTOKIA ETA ZU**

**PERTSONA HELBURU**  
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## Ikasleentzako metodo bat prestatu dute Maristetan

**DURANGO M.O.**

Maristak ikastetxean ikasleentzako lan tresna bat sortu dute. Xabier Arkarazo irakasleak azaldu du Lanbide Heziketako ikasleek jakintza teknikoak ikasten dituztela, baina, lan mundura sartzean, beste ezauzgarri batzuk faltan bota izan dituztela enpresek. Adibidez, jendaurrean berba egiteko eta inplikazioa hartzeko gaitasuna. Horregatik, Vtecoach proiektua sortu dute Europako beste herrialde batzuetako ikerlariekin batera. Erreminta informatiko baten eta trebakuntzaren bidez, ikasleak bere gaitasunak ebaluatzen ditu. Martitzenean jardunaldiak egin zituzten gaiaren harira.

Modu horretan, pentsamendu berritzailea, talde-lana eta arazoaren konponbideak bilatzea sustatu gura dute.

## Azaroaren 10erako prest, Geu Bek gestionatuko ez duen eguneko zentroa

Udalak utzitako lokal batean egongo da zentroa

**DURANGO Markel Onaindia** Urritasun intelektuala dutenentzako eguneko zentroa azaroaren 10ean zabalduko dute. Zurrumurrua kalean zebilen, eta horrela baieztatu du Bizkaiko Foru Aldundiak, zerbitzuaren arduradunak. Errotaritxuenako etxeetan udalak utzitako lokal batean egongo da zentroa, 520 metro karratukoa, eta 25 laguntzat izango du lekua. 10ean erabiltzaile bakarria sartuko da, eta hilabete beharko du normaltasunez funtzionatzeko. Urrian amaitu dira obrak, eta, Aldundikoen arabera, familiek instalazioak ikusi dituzte. Zerbitzua ez dute Geu Bek eta Akanak gestionatuko, hasieran uste zenaren kontra; Aldundiak Gorabideri esleitu dio ardura.

Geu Bek ez du oraindik ohar ofizialik jaso, Jose Alfaro koordinatzaileak kontatu duenez: "Gestioa interesatzen ote zitzaigun galdetu ziguten, eta guk baietz erantzun genien. Gero, ezin genuela eroan esan ziguten, esperientziarik ez omen dugulako". Durangaldean hamar urtez urritasun intelektuala duten gazteentzat aisialdi eskaintza garatu du Geu Bek, gazte horien familiek osatutako elkarteak. Edozelan ere, eguneko zentroa "berri ona" dela esan du Alfarak. Izan ere, familien eskaera izan zen, eta hutsune horren harira sortu zen elkarte.

Gaia martitzeneko udalbatzarrean irten zen argitara, EH Bilduk aurkeztutako mozio baten bidez. Koalizioaren arabera,



Errotaritxuenako eguneko zentroa.

familiekin egon ostean, espazio berriari hainbat gabezia ikusi dizkiote. Planik ez dagoela ere kritikatu zuen. Bestalde, zentroaren kudeatzailea Durangaldekoa izatea eta beharginek euskaraz jakitea beharrezko

ikusten du EH Bilduk. Mozio horren ordean PSE-EEK aurkeztutako alternatiboa onartu zen, EAJren babesagaz. Informazio falta salatu zuten sozialistek, eta, horren aurrean, Aldundia elkarrekin batzea exijitu zuten.

## Hobariak jasoko dituzte eraso sexisten biktimek

2015eko tasak 2014koak legez geratuko dira, igo barik

**DURANGO M.O.**

Martitzeneko udalbatzarrean 2015erako udal tasak eta zergak onartu zituzten. 2014koak legez geratuko dira guztiak, igo barik. Berrikuntza moduan eta PSE-EEK sustatuta, indarkeria sexistaren biktimek hobariak edukiko dituzte zerga ordenantza horietan. EAJk, Bilduk eta Aralarrek ere babestu zuten sozialisten ekarpena.

Tasetarako EAJk eginiko proposamena, aldiz, PSE-EEK bakarrik babestu zuen. Dani Maeztuk (Aralar) gaiaren inguruko gogoeta eskatu zuen. Eus-taten datuak erakutsi, eta Durangoko batz besteko errenta Bizkaikoa baino altuagoa dela esan zuen, baina zerga bilketa txikiagoa dela. Antza denez,

240 euro jasoko dira biztanleko, Bizkaiko batz bestekoa 272 eurokoa denean. Gero, gutxiago inbertitzen dela kritikatu zuen. Azken urteetan zergak igo izana, eta "hauteskundeak hurbiltzen direnean izoztu izana" ere salatu zuen. Maeztuk eta Eider Uribe (Bildu) irizpide sozialak eskatu zituzten errentaren arabera ordaintzeko. Bestalde, Uriberen ustez, tasak zehazteko udal aurrekontua zein den jakin behar da. Pilar Riosen arabera, "zerga progresiboak" dira hobariei esker.

Goiztidi Diazek (EAJ) argitu zuen KPIaren arabera ezartzen dituztela tasak. Hain zuzen, indizea negatiboa ei delako, Juan Jose Gastañatorrek (PP) tasak jaiste eskatu zuen.

## Kutxabanken etxe hutsak alokairuan jarri gura dituzte

Durango ez dago Kutxabankek duen hitzarmenean

**DURANGO M.O.**

Alokairuaren inguruko eskaera bi onartu zituzten martitzeneko osoko bilkuran Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEK. Lehen, Kutxabankek Durangon dauzkan etxe hutsak alokairurako erabiltzea, eta, bigarrena, San Roken saltzeke dauden babes ofizialeko etxebizitzak ere alokairurako erabiltzea.

Bilduk eta Aralarrek iragarri zuten Kutxabankek eta Alokabidek -Eusko Jaurlaritzaren menpekoa- hitzarmena sinatu dutela, 25.000 biztanletik gorako herrietan banketxeak hutsik dauzkan etxeak alokairuan ipintzeko. Dani Maeztuk (Aralar) kritikatu zuen Durango ez dagoela hitzarmen horretan: "Non egon zarete hitzarmena

sinatu denean?", galdetu zien EAJkoei. Horregatik, Durango hitzarmen horretan sartzea eskatu zuten mozioagaz. Bestalde, San Roken saltzeke dauden hogeit bat etxe alokairuan ipintzeko, Eusko Jaurlaritzaren

San Roken saltzeke dauden babes ofizialeko etxebizitzak alokairurako erabiltzea onartu dute

menpeko Visesa promotoreagaz akordioa gura dute.

Lurzoru publikoko ondarea alokairura bideratzea ere eskatzen zuten mozioak, baina ez zuten sozialisten babesik jaso.

## Ziburuko ikastolaren aldeko manifestaziora joateko deia

**DURANGO J.D.**

Ziburuko (Lapurdi) Kaskarotenea ikastolako ordezkariak ikastola horren etorkizuna kokolan dagoela gogoratu zuten barikuan, Plateruenean eskainitako prentsaurrekoan. Berrehun bat irakasle eta ikasle, eta Ikastolen Elkartearen zein Seaskako lehendakariak babestuta, Kaskarotenea ikastolako zuzendari Laida Mugikak eman zituen azalpenak. Azaroaren 8rako manifestaziora deitu dute Ziburun bertan, *Ikastolak ez hunki* leloagaz.

Atzo bertan ikastolako arduradunek jakinarazi zuten, Ziburuko Herriko Etxeak argindarra kendu dio Kaskaroteneari, eta egun bakoitzeko isuna 100 eurotik 400 eurora igo gura dio.

**MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN**  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**ANBOTO**  
gero eta gehiago

**11.500**  
ale

**29.000**  
irakurle barikuro

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · JURRETA · MALLABIA  
· ATXONDO · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR · ZORNOTZA




Konprometituta



aecc

Contra el Cáncer  
Minbiziaren Aurka



Zure erosketarekin,  
saldutako pakete  
bakoitzeko, 5  
zentimo zuzenduko  
ditugu (AECC)

## Erosketengatik opariak lortzeko aukera Dendariak elkartearen bidez

**ZORNOTZA** J. Derteano  
Urri hasieran Ixer auzoko aparkaleku berria inauguratu zuten 146 plazagaz. Doako aparkalekua dela eta txandakako sistema darabilela (gehienez hiru orduan aparkatu daiteke aldiko) dira aparkaleku horren berezitasunetako bi. Txandakako sistemak dinamismoa eskaintzen du, eta aproposa da herriko saltokietan erosketak egiten dituzten herritarrei zein herritik kanpokoei ahalik eta aukerarik zabalena eta malguena eskaintzeko. Horregatik, aparkalekuaren onurak azpimarratzeko eta babesa eskaintzeko, Zornotzako Dendariak elkarteak kanpaina bat abiatu du, eta erosketengatik opariak eskuratu ahaliko dira.

Dendariak elkarteko bazkide diren dendetan ehun euroko erosketa baino handiagoa egiten duenak telefono mugikorra kargatzeko Power Bank baterria mugikorra edo erosketak egiteko telazko gurditxoak jasoko du opari; hainbat saltokiren txartelak batu daitezke zenbateko horretara heltzeko. Ixer auzoko aparkalekuak eskaintzen duen aukeragaz Zornotzatik kanpora bizi direnentzat ere kanpaina aproposa dela uste dute Dendariak elkarteko ordezkariak.

### Opariak zelan eskuratu

Kanpaina stocka agortu arte egongo da indarrean. Opariak Zornotzako Dendariak elkarteak Luis Urrengoetxea kalean duen bulegoan jaso daitezke: 10:00etatik 14:00etara. Opari bakar bat emango da pertsona bakoitzeko.

## Autobusari eta gatazkaren amaierari itxaroten

Greba mugagabea daude Bizkaibuseko langileak

**DURANGALDEA** M. Onaindia  
“Ordu honetarako Zornotzan egon beharko nuke”. Iurretako autobus geltokian autobusari itxaroten egondako Soraya Moranen berbak dira. Denbora daroa zain, baina autobusa ez dator. Lanera, Bilbora, trenez joatea erabaki du: “Trenez joan behar izaten dut, eta Atxurin uzten nau; niretzat arazo bat da”. Astelehenetik greba mugagabea daude Bizkaibuseko beharginak, zerbitzuaren moldaketagatik 300 lanpostu galduko direla uste dutelako.

Urriaren 6an hasi ziren grebak egiten Bizkaibuseko beharginak, UGT, ELA, CCOO, LAB eta LSB-USO sindikatuek babestuta. Hilabete honetan beste zortzi egunez egin dute greba, eta astelehenetik hona mugabako greban daude. Aldundiak gezur-

tatu egin du lanpostuak kenduko dituela, baina sindikatuek ez dute gauza bera pentsatzen. Horregatik, Aldundia jo dute gertatzen ari denaren arduradun. Itziar Garamendi diputatuak esan du berba egiteko prest dagoela, baina baldintza bat jarri du horretarako: greba etetea.

Bitartean, eta gutxieneko zerbitzuak egon arren, erabiltzaileak trenez edo autoz mugitzera behartuta daude. Euretzako batzuk langileen alde ere badaude. Oier Amezua Leioako unibertsitateko ikaslea da horren adibide. “Euren borroka da, eta ondo ikusten dut”. Ikasleek, prezioak garestiak direla protesta egin da, beharginak babestu dituzte. Leioara Durangotik ez dago autobus bakar bat ere egun osoan, eta autoz joaten da Amezua, lagunekin batera.



Egunotan autobus gutxi ikusten dira geltokietan.

## Erriberako produktuak erosi eta euskarari lagundu

Errigora proiektua abiatu dute hirugarren urtez



Otzarak 50 euroan egongo dira salgai.

### DURANGALDEA M.O.

Errigora proiektua 2012an abiatu zuten Sortzen, AEK, Ikastolen Elkartea, Zazpiak Bat eta Errigoraren elkarlanari esker. Nafarroako Erriberako produktuen ekoizpena sustatzeaz batera, inguru horretako euskalgintza sustatzeko dirua baxtea da proiektuaren helburua. Aurreko aldien antzera, aurtengo kanpaina ere hiru epealditan banatu dute Euskal Herrian; lehenengoa abian da, azaroaren 12ra arte iraungo du, eta Durangaldeko hainbat herritako saltokik, ikastolak eta erakundeak bat egin dute ekimenagaz.

Aurtengo leloa *Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka* da, eta Erriberako produktuez osatutako saskia eskuragarri egon-

go da 50 euroren truke: olio botila bi, piper poto bi, zainzuriak eta ardo beltza... (zerrenda osoa [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunean).

Eskualdeko bost herritan egin daitezke otzaren eskariak: Zornotzan AEKn, Far Far tabernan eta Oihane ile apaindegian; Durangon Abarrak AEKn, Plateruenean, Momotxo tabernan, Ibaizabal ikastolan eta Kurutzia- ga ikastolan; Elorriion Abizari AEKn eta Txintxirri ikastolan; Iurretan Urien liburu dendan; eta Otxandion Kementsu elkartean. Zornotzan e-mail bat ere bideratu dute eskariak egiteko: [zornotza@errigora.org](mailto:zornotza@errigora.org). Zornotzan eskatutako saskien ordainketa eta banaketa azaroaren 17 eta 30 bitartean egingo dute, Ixerbekoa kiroldegiko lonjan.

## Jubilatuek euskara ikasteko taldea osatzen hasi da Berrizko AEK

Udaletxean eta jubilatuen egoitzan dago ikastaroan izena emateko aukera

### BERRIZ Amaia Ugalde

Bilobekin berba egiteko, euskaraz irakurtzen erraztasuna hartzeko, idatzizko euskara praktikatzeko... Horrelako kontueta- rako gogoa duten adinekoentzat ikastaroa antolatuko du aurtengo Berrizko AEK-k. Urtarriletik ekainera eskainiko dute ikastaroa, eta hasi dute taldea osatzeko kanpaina. Astean bitan, egun bakoitzean bi orduko eskolak izango lirateke. Izena eman gura duenak jubilatuen egoitzan edo

udaletxean izango du horretarako aukera.

Ikastaroan parte hartzeko ez da gutxiengo euskara mailarik beharko. Zerotik hasteko edo

Urtarriletik ekainera eskainiko dute ikastaroa, eta hasi dute taldea osatzeko kanpaina

hobetzeko aukera izango dute Berrizko jubilatuek.

AEK-ko arduradunek astelehenak eta eguaztenak proposatu dituzte eskolak emateko, 10:00etatik 12:00etara. Dena dela, interesa daukaten herritar guztiei izena emateko deia egin diete, eta azaldu dute ordutegiak eta egunak jendeak ahal duen horretara egokitu ahaliko direla. Informazio gehiagorako udal- txera edo Berrizko AEKra - 662 966 827 zenbakira- deitu daitezke.

## Zaldai-Solabisker bidea konpontzen dabilta

Otsaileko denboralean lur-jausia gertatu zen

### GARAI M.O.

Joan zen otsailean izandako denboralean eta euriteen ondorioz, lur-jausia gertatu zen Zaldaitik Solabiskerrera bidean. Lurra leku bitan mugitu zen, eta arbola batzuk jausi ziren. Udalak diru-laguntza eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta ekarpen horri esker eroan dute aurrera proiektua. 50.000 euro jaso zituen Garaiko Udalak, aurrekontuaren %81 inguru. Udalak obra adjudikatu

zuen, eta beharginak badabilta lanean.

Horretaz gainera, beste bide bi konpontzeko lanak ere egitasmo berean sartu dituzte. Hain zuzen ere, Arroitagane baserrira eta Beratuazpira doazen bideak konpontzen dabilta.

Udal ordezkariak azaldu dutenaren arabera, obrak amaitzeko hilabete biko epemuga ezarri dute, baina, hala ere, hilabete bakarrean amaitzeko esperantza daukate.



# Plan Orokorri buruzko galdeketa egingo dute azaroaren 21ean eta 23an

Planerako landutako sei ereduak azaroaren 6an aurkeztuko dituzte



Hainbat mañariarrek parte hartu dute HAPOren aurrerapena aztertzeko prozesuan.

**MAÑARIA** Markel Onaindia Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) aldatzeko prozesu parte-hartzailean murgilduta daude iaztik Mañarian. Helburua, plan berri horren aurrerapena onartzea da, eta, batez ere, herrigunearen eraldaketa du helburu. Oinarri horregaz, herri osorako HAPO landuko dute gero. Hasierako batzar zabalaren ostean, emaitzak batu eta adostu, eta sei eredu landu di-

tuzte. Azaroaren 6an aurkeztuko dituzte, 19:00etan, pilotalekuan egingo den herri batzarrean. Gero, azaroaren 21eko eta 23ko herri galdeketa bozkatuko dute 16 urtetik gorako herritarrek euren eredu gustukoena. 24tik 28rako astean ere botoa eman ahalko dute udaletxean.

Etxebizitza, ekipamendu eta espazio publiko berriak jasotzen dituzte sei ereduak. Txikiak 90 etxe egitea, eta ekipamendu

eta espazio publiko bakarra eraikitzea dakar. Eredu handiak, aldiz, 156 etxe altxatzea, ekipamendu bat sortzea eta espazio publiko berri bi ezartzea dakar. Endika Jaio alkateak esan du ahalik eta lur gutxien erabiltzea erabaki dutela, etorkizunari begira; ingurumena errespetatuko dutela ere adierazi du.

Azaroaren 7an, 13an eta 14an informazioa aukeran edukiko dute herritarrek.

## Erorikoei aurea hartzen ikasteko ikastaroa jubilatuen etxean

**IZURTZA** Joseba Derteano Durangaldeko Amankomunazkogoko Adinekoen Sailak antolatuta, erorikoei aurea hartu eta eurak saihesteko ikastaroa abiatu dute Izurtzako jubilatuen etxean. Adin batetik gora gorputzean izaten diren aldaketek erorikoak zelan eragin ditzaketen azalduko dute gaiak adituak diren eta ikastaroa emango duten Siel Bleu elkarte irakasleek. Ikastaroko eskola bi azaroaren 5ean eta 12an izango dira, 16:30etik 17:30era, jubilatuen etxean. Ikastaroa doakoa izango da.

Ikastaroko eskola bi azaroaren 5ean eta 12an izango dira, jubilatuen etxean

Siel Bleu irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta Frantziar sortu zuten 1997an. Harrezkero, nagusien dinamizazioaren arloko hainbat sari irabazi ditu.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE**  
PP



### Gizartearen eredu

Azken hamabost urteetan erakundeek ahalegin handia egin dute izugarriko gaitz soziala den emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko. Azaroaren 25a da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Zoritxarrez, egun horrek indarrean jarraituko du emakume izate hutsagatik abusuak jasotzen dituen emakume bakar bat dagoen bitartean.

Horregatik, oso garrantzitsua da emakumeek sufritzen duten indarkeria mota guztien aurkako konpromisoa berrestea, eta, horretarako, gizarte osoaren partaidetza lortu behar da. Biderik segurua hezkuntza inbertitzea da, hurrei eta gazteei mezu argi eta zuzen bat helaraztea: indarkeria, giza eskubideen urraketa larria izateaz gainera, emakumeen kontrako diskriminazio adierazpenik handiena da. Jarrera hori bidegabea da beti, eta aringarrik gabe gaitzetsi behar da.

Ez da isilik gelditu behar; izan ere, isiltasuna emakumeen aurkako abusuaren konplize zuzena da. Salaketaren eta sentsibilizazioaren bidez soilik amaituko dugu errealitate gogor honekin. Egoera honetatik irten daiteke.

PPtik gure begirunea aitortu eta laguntza eskaini nahi diegu, euren adoneari eta kemenari esker, gorabehera guztiei aurre egin, eta euren bizitzako atal triste horri gaina hartu dieten emakumeen kontrako indarkeria jasan duten biktimak guztiei eta euren familiei. Erabateko eredu, eta beste emakume batzuen aitzindari dira. Konpondiderik badela jakinarazten diete, eta, era berean, guztion laguntza dutela adierazi ere bai.

Hau da PPK duen konpromisoa. Lanean jarraituko dugu emakumeek egoera horri aurre egin diezaioten, eta, beti izan behar zuten eran, euren askatasunaren eta autonomiaren jabe izan daitezten.

\* Erredakzioan itzulita

## Udaletxean egin ahalko dira trafikoko hainbat tramite

Udalak eta Trafiko Zuzendaritzak ituna sinatu dute

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Udal gobernuak jakinarazi duenez, EAEko Trafiko Zuzendaritzaren Bilboko egoitzara joan beharrik barik, aurrerantzean, Abadiñoko udaletxean bertan egin ahalko dituzte herritarrek hainbat tramite. Aurreratu dutenez, autoaren datuak edo gidabaimenekoak aldatu ahal izango dituzte udaletxean, eta autoari baja eman ahalko diote.

Udalak eta Trafiko Zuzendaritzak sinatu duten hitzarmenaren arabera, bestalde,

Abadiñoko udaltzaingoak eta udaleko beste sail batzuek (Ogasun Sailak, esaterako) sarbidea izango dute, hemendik aurrera, ibilgailuen zergari eta bide segurtasunari buruzko Trafiko Zuzendaritzaren datu-basera.

Besteak beste, autoaren datuak edo gidabaimenekoak aldatu ahalko dituzte udaletxean

## Bere horretan mantenduko dituzte tasak eta zergak

Udal gobernuaren proposamenak EAJren babesa du

**ABADIÑO** I.E.

Abadiñoko Independentek taldearen eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten, martitzenean, 2015erako udal tasa eta zerga gehienak ez igotzea. Zerga ordenantzak osotasunean aztertu behar liratekeela eta progresiboak izan behar luketela adierazi zuen, bestalde, Bilduk, eta abstenitu egin zen.

Antonio Serrano Ogasun zinegotziak azaldu zuen, "krisi ekonomikoan, herritarrenganako presio fiskala ez gehitzea"

izan duela helburu nagusi gobernu taldeak, tasa eta zerga gehienak ez igotzeko. Serranok azaldu zuenez, bestalde, 2015. urterako zerga ordenantzetan epigrafe bi sortu dituzte; San Blas azokan erakusmahai ipintzeagatik udalak lehen ere tasa kobratu izan badu ere, orain arte ez da epigrafe berezirik egon udal ordenantzaren.

2010. eta 2013. urteen artean ere ez zituzten igo udal tasak eta zergak, baina 2014rako %1,5eko goiera ezarri zuten, batzaz beste.

**katerin ardoak**  
**inaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



# Orozketan hasi dira etxeko ura ur hornidura berritik jasotzen

Garaizarreko depositutik ia hiru kilometroko hoditeria jarri dute Orozketara



Gibelan, udaleko eta obran parte hartu duten erakundeetako ordezkariak.

**IURRETA** Amaia Ugalde Mugarra aldeko iturburutik barik Garaizarreko ur depositutik hartzen dute dagoeneko ura Orozketan. Ur Patzuergoaren depositutik ura jasotzeko lanak amaitu dituzte, eta astelehene-

tik ur hornidura berria dute. Ura Orozketara igotzeko ia hiru kilometroko hoditeria jarri dute, eta Gibelan depositu berria ipini dute, zaharraren ondoan.

Azaldutenez, aldaketagaz kalitatean eta kantitatean hobe-

tuko da ur hornidura. Orain arte Orozketan ur edangarria izan badute ere, iturburuko urak mineral asko ditu, eta galdarek kalte egiten die. Horretaz gainera, udan, batzuetan, ur gutxiago eta presio gutxiago edukiko izan dute, eta arazo hori konponduko dute: "Ez dakigu bihar-etzi ur falta benetako arazoa izan daitekeen". Gibelako ur depositu berriak 60 metro kubiko ditu, zaharrak baino hiru bider gehiago.

Ura Garaizarretik hartu, eta ponpaketa bidez igotzen da Gibelara. Guztira, 600.000 euroko kostua izan dute lanek, eta bide batez errepide zatiak konpondu dituzte. Prentsari atzo eman zizkioten obraren inguruko azalpenak udal ordezkariak, eta obran parte hartu duten Ur Patzuergoko, Ingeplan aholkularitzako eta Provisa enpresako kideek.

## Elkarlanean erreka garbitzeko deia egin du gazte asanbladak

**OTXANDIO** J. Derteano Zapatu goizean Otxandioko Urkila erreka herritarrekin elkarlanean garbitzeko deia egin du gazte asanbladak. 09:00etan ipini dute hitzordua udaletxe pareko plazan.

Hainbat urte dira ekimen hori antolatzen dutela. Zakarrak batzeko plastikozko poltsak eta eskularruak udalak ahalbidetzen ditu, eta ez dago beste ezer eraman beharrik: errekan ibiltzeko botak edo oinetako egokiak bakarrik.

Jende nahiko batzen bada, talde bi osatuko dituzte, eta erreka alde banatatik hasiko dira zakarrak batzen, elkartu arte. Ondoren, 12:00 inguruan, ekimenean parte hartu dute luntza egongo da gatzetxean.

Batutako zakar guztiak udaletxe pareko plazan ipiniko dituzte. Horrela, herritarren artean erreka garbi mantentzeko mezua zabaldu gura dute. Domekan, ostera, zakarrak sailkatu, eta dagozkien zakarrontzietara botako dituzte.

Urte hauetan denetarik aurkitu izan dute erreka garbitzen zebiltzala; lantegietako pote handiak, ortuetan erabiltzen diren baldeak, jendeak botatako plastikoa -gozokienak, adibidez-. Inoiz etxetresnaren bat ere aurkitu izan dute errekan, gazte asanbladako kideen esanetan.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Izen-ematea hasi da sukalki txapelketan

**ZORNOTZA** > Azaroaren 8an sukalki txapelketa (gisatua) egingo dute Luis Urrengoetxea kaleko jaietan. Bertan parte hartzeko izen-ematea azaroaren 7an amaituko da, eta Luis Urrengoetxea kaleko tabernetan egin daiteke. Izen-ematea kuadrillak egin behar da, eta 20 euroko fidantza utzi beharko dute kuadrillek.

### Hondakinen kudeaketa berbera

**DURANGO** > Durangoko Udalak udal hondakinen kudeaketari buruzko parte-hartze prozesua egingo du azaroaren 6an, 19:00etan, Landako Elkartegian. Bileraren helburua da hondakinen kudeaketa sistemei buruzko esperientziak partekatzea gaian adituak direnekin, eta, ondoren, bertaraten direnekin eztabaidatzea.

### Iurreta, frackingik gabeko udalerrri

**IURRETA** > Frackingaren kontrako mozioa onartu du Iurretako udalbatzak. Hidrocarburo de Euskadiri eskatu diote fracking egin ahal izateko azterketen baimenak bertan behera utzi ditzala, eta Iurreta frackingik gabeko udalerrri izendatu dute. Bilduk eta EAJk alde bozkatu dute, PSE-EE abstenitu egin da, eta PPK kontra bozkatu du.

# Maspeko tuneleko lanak geldi daude, eta enpresa konkurtso egoeran dago

Lanen kontratua etengo du udalak, eta egiteko falta dena gremioka esleituko du

**IURRETA** A.U. Maspe eta Bixente Kapanaga arteko tuneleko lanak astelehenean amaitu behar zituzten, baina amaitu barik daude. Enpresak bi hilabeteko epea izan du lanak amaitzeko, eta oraindik zati handi bat geratzen da egite-

ko. Epea luzatzeko eskatu dute, baina legezko luzapenagaz -hamabost egun- lanak amaitzeko astirik ez dagoela azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Gainera, duela egun gutxi konkurtso egoeran sartu da obraren enpresa arduraduna.

Egoera ikusita, kontratua amaitzeko prozedura hasi du udalak. Orain arte egindakoa ordaindu, eta falta diren zatiak gremioka kontratatuko ditu. Elektrizitatea, lurreko baldosak, eta hormetako eta sabaiko pladurra jartzea falta da.

## Iritzia

### Euskara, zilarra

Egungo Bolivian dago Potosí. Eta Potosin bazen mendi bat zilarrez betea. Zilarrak estimazio handia zuen aberatsen artean, mende luzez metal preziatuaren metatu baita aberastasuna. Seguruena Potosiko zilarra Durangora ere iritsiko zen bueltan-bueltan, Durangoko plateruenera.

XXI. mendean Durangoko Plateruenean beste zilar bat erabiltzen da, euskara. Kasu honetan ez da esku gutxitan metatzen den aberastasun klasea, partekatzen dena baizik. Areago, partekatu ahala ugaltzen den aberastasuna da euskararena.

Euskarak aberasten gaitu nortasuna ematen digulako: gauza ederra da munduan eroso ibiltzea, nor garen jakinda. Gizartea justuago ere egiten du, euskal hiztunen eskubideak babestean beste guztienak ere aldarrikatzen ditugulako. Eta berdinagoa, edonondik gatzela euskaldun ere izateak gure arteko koskak leuntzen dituen neurrian. Baita ekologikoagoa ere, hizkuntza ahuldu bat babesten eta suspertzen dugunean, espezie

erasotuen zaintzarako jarrera indartzen zaigulako.

Horrela, euskararen alde egiteak gure elkarbizitza sendotzen du. Horregatik da euskara zilarra.

Eta zilar hori da Durangoko Palteruenean lantzen dena. Hamar urte eta hamaika eskarmentu, lorpen eta zailtasun. Nahia badago urte askotarako, zailtasunak gairatu behar.

Zilarra berritzen eman da denbora, eskarmentuari etekina ateratze aldera. Eta jarduna indarberritu nahi da, eragina biderkatu, hedapena areagotu, borondateak saretu... Euskararen zilarra partekatuz ugald.

Bere konpromisoa berritu du Durangoko Plateruenera, eta laguntzeko eskatzen dizu. Dirua edota denbora. Beste hamar urteko txanpa indartsu bati elkarrekin ekiteko, hasierako inbertsioen zama arinduta. Xehetasunak hemen: <http://www.plateruena.net/ekarpen-kanpaina/>

Euskara zilarra da. Eta gaur Durangon dago Potosí.

Mikel Irizar, euskaltzalea. Nerea Mujika, Gerediaga Elkarteko presidentea. Edu Barinaga, ETBko zuzendaria. Maddalen Iriarte, kazetaria. Angel Valdes, disko ekoizlea. Paddy Rekalde, idazlea. Unai Iturriaga, bertsolaria.

**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • Telefonoa • Helbidea • Nortasun agiriaren zenbakia  
**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituta eta zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitza

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

**Oreka**  
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA  
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, auto istripua, drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behea ezkerre  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PODOLOGIA

**JON GERRIKAETXEBARRIA**  
PODOLOGO

**JON GERRIKAETXEBARRIA**

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**  
PODOLOGOIA

**AINHOA ELORZA**  
PODOLOGOIA

*Kiropodia, onikopatía, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

**ZENTRO OPTIKOA**

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

## PEDAGOGIA

**UGAITZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia*

Juan de Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**

**Ainara Legardon** | Musikaria | Bilbo, 1976

**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
 ‘Every minute’ diskoa kaleratu berri duzu. Zer sentsazio duzu? Disko bat kaleratzen dudan ba-koitzean bezala, batetik, abentura berri bat hastera doalako sentsazioa dut. Bestetik, disko honen produkzio lana oso handia izan da, eta, aurrekoek baino arrasto handiagoa utzi didanez, lasaitze moduko bat sentitu dut.

**Mimo handiz eta autoekoizpe- naren bidez kaleratu duzu dis- koa. Zergatik autoekoitzi?**  
 Nire obraren gaineko kontrola mantentzea ahalbidetzen didalako, eta musika arloko negozioiek eta guztiz gaitzesten ditudan in- dustriaren mekanismoek zehaz- ten duten bidetik kanpo ibiltzeko aukera ematen didalako.

**Bidaiaren ideia da disko hone- tako gai nagusia?**

Bai, diskoko kanta guztiak azken zazpi urteetako nire joan-etorrie- tan konposaturikoak dira: gaur egun naizena izatera bultzatu nauten gertakariak bizi nituen bitartean sorturikoak.

**Zelakoa izango da Berrizko biharko kontzertua?**

Bira abiatuko dugu Berrizko kontzertu horregaz, eta disko berriko kantak ez ezik, aurreko lanetako kantaren batzuk ere joko ditugu. Ruben Martínez ba- xu-jotzaileagaz (Maika Makovs- ki eta Tokyo Sex Destruction taldeagaz jo izan du) eta Hector Bardisa bateria-jotzaileagaz (Fly- ingpigmatanza musika taldeko kidea) etorriko naiz.

## “Disko honen ekoizpen lana handia izan da; aurrekoek baino arrasto handiagoa utzi dit”

Berrizko biharko kontzertuagaz abiatuko du Ainara Legardonek ‘Every minute’ diskoaren aurkezpen bira



Dani Arrizabalaga.

**Azken urteetan atzerrian asko jo duzu. Berezia da bira Euskal Herrian abiatzea?**

Etxera bueltatu, eta bira hemen abiatzea oso atsegina da. Berriz- koaren ostean, domekan, Marki- nan joko dugu, gainera.

**Abenduan autogestio musika- lari buruzko tailerra gidatuko duzu Berrizen. Zertan datza?**

Zortzi orduko tailerra da, eta bertan nire esperientzia eta

tresnak transmititzen ditut, au- togestionaturiko proiektu bat gauzatu gura duenak informa- zioa eskura dezan. Parte-har- tzaileek baliagarri izan ditza- keten ideiak eta alternatibak eskaintzen saiatzen naiz.

**Esperimentalagoak diren hain- bat proiektu sortu dira azkenal- dian gurean. Zer deritzozu?**

Oso interesgarriak iruditzen zaizkit azken urteetan esperi-

mentazioaren arloan sorturi- ko hainbat proiektu: Murse- go, Amorante, Joseba Irazoki, IbonRG, Inazio Escudero eta Naiel Ibarrolaren lanak, esate- rako. Rockean ere konbentzio- nalenak ez diren proposamenak ditut gogoko: Lisabö, Borrokan, Inoren Ero Ni eta Akauzate. Bestetik, asko poztu nau Willis Drummond taldearen arrakas- tak ere, eta oso hurreko senti- tzen dut MobyDick, esaterako.

**Hamarkada bi daramatzazu musikan. Zer oroitzen duzu hasierako urteez? Zelan ima- jinatzen duzu zure burua eta musika hamar urte barru?**

Hasierako urteetan ikasi nuen gauzak nola ez ditudan egin nahi: horrek eraman ninduen autoekoizpenera. Hemendik hamar urtera bakarrik ez, bizi osoan imajinatzen dut nire bu- rua egiten dudana gozatzen, eta egiten dudana maitatzen.

## Emakumeak eta gazteak, Kantuaren Kantoiaren erdigune

Azaroko lau eguaztenetan kantuarren kantoi bihurtuko da Durangoko Plateruena



Eneritz Dueso ‘Furya’ abeslariak gidatzen du Kasernarat hirukotea.

### > MUSIKA

Musikariak eta musikazaleak ohiko kontzertuetan baino ger- tuago egongo dira elkarrengad- ik, azaroko lau eguaztenetan, Durangoko Plateruenean. Izan ere, seigarren urtea da helburu horregaz Kantuaren Kantoi- a antolatzen dutena Platerue- nean. Jonan Hernández kaze- tariak gidaturiko jendaurreko solasaldia eta musikarien ema- naldia tartekatuko dituzte lau hitzorduetan.

Joan zen ikasturtean, Pla- teruenean garaturiko *Zilarbe- rritzen* partaidetza prozesuan jasotako ekarpenak hartu di-

tuzte 2014. urteko Kantuaren Kantoiaren programazioa osa- tzeko oinarri nagusitzat: ema- kumezko sortzaileen eta gazteen parte-hartzea bultzatu beharko litzatekeela esan zuten partaide- tza prozesuan askok, eta profil horretako taldeak gonbidatu di- tuzte Kantuaren Kantoiara.

Kasernarat hirukote gipuzkoarrak zabalduko du Kantuaren Kantoi- a azaroaren 5ean

Azaroaren 12an ariko da Kokein Kantuaren Kantoi- an; 19an Seiurte; eta 26an Siroka

Kasernarat hirukote gipuz- koarrak zabalduko du azaroa- ren 5ean aurtengo Kantuaren Kantoi- a. Irungo eta Oretetako (Gipuzkoa) musikariek osatzen dute Kasernarat taldea: Eneritz Dueso *Furya* kantuan, gitarran eta soinu txikian; Mikel A. Pe- dreño Kikiel baxuan; eta Ander del Sol baterian.

Zalao Urainen ahotsa buru duen eta hamabost urteko ibil- bidea egin duen Kokein talde eibartarra, Maria Riverok gida- tzen duen Siroka laukote bilbo- tarra eta Berrizko Seiurte taldea ere gonbidatu dituzte aurtengo Platerueneko berbaldi musika- tuetan aritzera. Azaroaren 12an ariko da Kokein; 19an Seiurte; eta 26an Siroka.

Aurreko bost urteetan bezala, doakoak izango dira Platerue- neko Kantuaren Kantoi-ko ema- naldi guztiak, eta 20:00etan ipini dute hitzordua.

## Mikel Onandiaren arte liburu bat argitaratzen lagundu daiteke

### > ARTEA

Hainbat komunikabidetan 2009tik 2014ra arte euskaraz argitaratu dituen 120 arte kritika eta artearen inguruko artikulua argitara ematea da ANBOTOren ere kolaboratzaile den Mikel Onandiaren helburua. *Arte paperak 2009-2014* izenburua izango du liburua. Finantzaketa kolektiboa erabiliko du egitasmoa gauzatu ahal izateko, hau da, herritarren diru ekarpenen bidez argitaratu nahi du lana. Irabazi asmorik gabeko eta arte kritikan espezializaturiko Sans Soleil argitaletxeagaz kaleratuko du lana. Azken bost urteetako Euskal Herriko panorama artistiko zabala islatuko du bertan: erakusketa eta arte gertakari garrantzitsuenen jarraipena eta dokumentazioa jasoko du 430 orrialde inguruko liburuan.

## 'Urari ostutako poemak' liburuko olerkiak, Hitzzen, Aristiren ahotik

Argitaratu berri duen liburua aurkeztuko du Pako Aristik Durangon



> LITERATURA Itsaso Esteban Azaroaren 6an, Durangoko Hitz liburu dendan ariko da Pako Aristi idazlea (Urrestilla, Gipuzkoa, 1963), argitaratu berri duen liburuko olerkiak errezitatzen. Susa argitaletxeagaz kaleratu du Pako Aristik *Urari ostutako poemak* izenburuko liburua,

Itsasoari begira sorturiko olerkiak dira, Pako Aristi idazleak azaldu duenez, liburu berriko asko

eta bertako poemak egilearen ahotik entzuteko aukera da Durangoko Hitz liburu dendan eskainiko dutena.

Doako sarrera izango du Hitz liburu dendako ekitaldiak, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, ordubete inguruko iraupena izango du. Errezitaldiaren ostean, liburu dendako aurkezpenetan ohi duten bezala, jan-edanerako eta solaserako aukera ere izango dute bertaratzen direnek.

Idazle gipuzkoarrak azaldu duenez, Getariako ibilaldietan, itsasoari begira sorturiko olerkiak dira *Urari ostutako poemak* liburu berriko asko: "Itsasoari ostutako poemak dira, itsasoak emandakoak, zelanbait", azaldu du Pako Aristi egileak. Hortik Durangon aurkeztuko duen liburua izenburua: *Urari ostutako poemak*.

### GEURE DURANGALDEA

#### JON IRAZABAL

Gerediaga Elkarte



#### Udazkeneko San Martin...

Pasatu dira sanmigelak eta joanak ditugu sanfaustoak. Lehenagoko gure jai egutegian, azken horiekin bukatutzat ematen genuen apirilean Matienako San Prudentziorekin hasitako herri-rik herriko *jai-tourra*. Baina... oraindik gelditzen dira. Azaroaren 11 inguruan Tourseko San Martin deunaren jaiak dira. Santu horrek Mañarian, Amatzan (Iurreta), Martzaan, Gazteluan (Abadiño) edo Otxandion ditu berari eskainitako ermitak. Gaur egun ez dakit zeinetan ospatzen duten egun hori. Adibidez, Amatzan eta Gazteluan, jaiak azaroan barik, uztailearen 4an ospatzen dute. Nahiz eta euren santua Tourseko San Martin gotzaina izan, Akitaniako Langresko San Martin oroitzen dute egun horretan. Zer dela eta? Normalean azaroan baino denbora hobea izaten delako uztailean? Baliteke. 25ean izango dugu Santa Katalina. Bera dugu Elorrioren Berriozabal eta Iguriako ermitetako etxandrea. Esan didatenez, lehenago erromeria antolatzen zuten, baina gaur egun meza bakarrik. Bukatzeko, azaroaren 30ean San Andres. Jaieguna Zaldibarko elizatean.

San Martin egunez, orain 110 urte, 1904an, hasi ziren euren ikasketak ematen Durangon Maristak. Urtearen hasieran zazpi irakasle izan zituzten. Kurtsoaren bukaeran 100 inguru ziren bildutakoak. Amaitzeko, eskolak direla eta berbetan gabiltzanez, gogoratu 1886ko azaroaren 21ean Iurretako udal-letxea plazatik Montoiko tabernara aldatu zutela. Tabernako lehen solairuan kokatuta zegoen eskola, eta herriko tabernan ikusi eta ikasten zutena ez zela egokia eta, eskola plazako etxera eramane zuten. Zinegotziak seguruenik denak ados.

### > KRONIKA > BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2014, MUNGIKO KANPORAKETA



## 'Abarkas' ere finalaurrekoetara

### > AMAIA UGALDE

Txapelketarako elkarrekin entrenatzen ibili dira Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo *Abarkas*. Gogor ekin diote, eta igarri zen zapatuan; orain arteko kanporaketa bizienean parte hartu zuten Durangaldeko bi bertsolariek.

Mungiaiko kanporaketan orain arte baino puntu gehiago banatu zituzten epaileek, eta gehien *Abarkasek* jaso zituen: 377. Agendan apuntatuta izango du hurrengo hitzordua: Etxebarrian, azaroaren 22an jokatu du finalaurrekoa, Miren Amuriza, Fredi Paia, Iratxe

Ibarra eta oraindik ezagutzen ez ditugun beste bi sailkatugaz batera.

Gorka Lazkanok ez zuen hain egun ona izan. Zortziko nagusian ideia onekin, baina poto batez hasi zuen saioa bertsolari berriztarrak. Hasierako agurrean kantatu zuen:

"ia atzamarrak zulatu barik / pasetan dogun eguna", eta tartean perla batzuk bota bazituen ere, ez zen bere onenean ibili.

*Abarkasek* saio polita egin zuen, eta Joseba Artzagaz batera, bera ibili zen orekatuen. Kartzelako lanean bi bertsolariek egindakoa, adibide. "Ondo pentsatu eta gero, herentzia egitea pentsatu dozu", zen gaia. *Abarkasek* ez zeukan laster hilko zela pentsatzeko arrazoirik, baina testamentua egitea erabaki zuen "seme-alabak ez daitezzen haserretu". Artzak, berriz, osasun egoera makala deskribatu zuen eta, badaezpada, testamentua egitera zihoala kantatu zuen, estilo freskoan.

Domekan, Mallabian izango da laugarren kanporaketa, 17:30ean, pilotalekuan. Arrate Illaro, Eneko Arrate, Gorka Ostolaza *Potxis*, Malen Aménabar, Nerea Ibarzabal eta Peru Vidal ibiliko dira kantuan.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Khea Ziater**  
**NOT (Never On Time)**  
Urriaren 31n - 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

URRIAK 31 19:00etatik aurrera	AZAROAK 5 20:00etan	AZAROAK 6 21:00etan
PLATERUENAREN 10. URTEURREN EKITALDIA OSPAKIZUNA	KANTUAREN KANTOIA: KASERNARAT BERBALDI MUSIKATUA	PAXCAL IRIGOYEN ETA LARRAZKEN ORKESTRA MUSIKA KONZERTUA

EGUNEKO MENUA  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

# EDERTASUN GIDA



**Jon Sopelana. Lunik.**

## Luniken, bisita atsegina

### Zer da Luniken bezeroari transmititu gura diozuen?

Lunikera eginiko bisita une atsegin bat izan dadila, eta ez nahitaezko zerbait. Irtelean, ondo sentiitzea barrutik eta kanpotik. Arazoaren gainean eragiten duten krema eta indar-emaeleak erabiltzen ditugu, eta energia txarrak askatzen lan egiten dugu.

### Mundu mailako joerek eragiten dute estetikan ere.

Aldaketa sasoi batean bizi gara, eta barne mundura eroaten gaituen prozesu batean gaude. Kultura unibertuala, ekonomia jasangarria, osasuna eta zientzia, pertsonaren eta planetaren zerbitzura ipintzen dituen kontzientzia batera goaz. Ilea edertasun errealerara eta osasungarrira bideratua dago.

### Zelan egiten duzue lan?

Luniken, produktu eta teknika erasokorrak erabili barik, naturak emandakoari probetxu handiena aterata egiten dugu lan. Estetika tratamendu naturalak erabilia eta gure filosofiarri jarraituta, zerbitzu integrala eta pertsonalizatua ematen dugu. Gure prestakuntza jarraituari esker, behar dituzun soluzioak ematen dizkizugu.



## ILE APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK



## DIETETIKA eta NUTRIZIOA



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

Unai Iturriaga | Durango, 1974 | 'Haur Besoetakoa' komiki albuma sortu du, Alex Sanvi marrazkilariagaz batera

## “Nagusien munduko ustelkeria umeen mundura ekarri dugu komiki honetan”

Asteon aurkeztu dute 'Haur Besoetakoa' albuma

**> LITERATURA** Itsaso Esteban 'Udaberririk ankerrena' libururako bezala, Alex Sanvigaz elkarlanean sorturiko lana da 'Haur Besoetakoa', ezta?

Bai, duela zazpi urte hasi ginen Ikastolen Elkartek kaleratzen duen *Xabiroi* komiki aldizkari-rako Haur Besoetakoa pertsonaiaren istorioak argitaratzen. Asteon aurkeztu dugun komiki album hau, aldizkarian argitaratutakotik egin dugun aukeraketa bat da. Sanvik eta biok *Udaberririk ankerrena* argitaratu aurretik, bitartean, eta ostean ere egin dugu elkarrekin lan. Postaz aritzen gara, eta egia esan oso ondo moldatzen gara. Urtean gutxienez Haur Besoetakoaren hiru istoriotxo argitaratu ditugu, eta elkarlan erraza da.


**Zelan hartu izan du orain arte irakurleak 'Haur Besoetakoa'?** *Xabiroi* Ikastolen Elkartek kaleratzen duen aldizkaria da, eta orain arte banaketa nahiko mugatua eduki du; ikastoletan bakarrik banatu izan da. Orain arte erantzun gehiegi ez dugu jaso, egia esan. Hemendik aurrera, baina, edozeinek izango du aldizkaria jasotzeko harpidetza egiteko aukera. Espero dut horrek oihartzuna ematen laguntzea. Oso kalitate handiko aldizkaria da; ez da horrelakorik

egon Euskal Herrian *Ipurbeltz* desagertu zenetik. Dani Fanok lan handia egin du, literaturatik datorren jendea eta marrazkilaria harremanetan jartzeko eta elkarlanera bultzatzeko.

**Zer irakurle profili zuzenduriko istorioak daude aldizkarian?** *Xabiroi* hamabi urtetik gorako gazteentzako aldizkaria da, baina helduek eta umeek ere gustura irakurri dezaketela uste dut. Gogoan dudanez, *Ipurbeltz*en ere, esaterako, denetariko istorioak zeuden, batzuk naifagoak eta beste batzuk gordinagoak.

**Sortzerakoan, gidoian zentratzen duzu zuk zure jarduna eta marrazkietan dihardu Sanvik?** Bai, kasu honetan, gidoilaria naiz ni, eta marrazkilaria Sanvi. Egia da azkenaldian ni ere banabilela nire kontura marrazkiak egiten, baina Sanvi nigandik argi urteetara dago horretan. Oso marrazkilaria ona da, profesional bikaina.

**Gidoia sortzerakoan ez duzu marrazkirik egin?** Egia da sarritan ez dela erraza izaten gidoian berbaz azaltzea binetan zer ikusiko den, edota zer esango edo egingo duen pertsonaia bakoitzak. Batzuetan zuk buruan daukazuna besteak zelan



ulertuko duen jakitea ez da erraza izaten. Horrelakoetan bai, zirraborro bat gehitzen diet berbei. Baina ni marraztea gustatzen zaion pertsona bat naiz, eta Sanvi da hemen marrazkilaria.

**'Haur Besoetakoa' nori gomendatuko zenioke?** *Haur Besoetakoa* hainbat irakurketa geruza izan ditzakeen lana dela uste dut: gaztetxoei zuzenduriko lana da, pertsonaia nagusia ume bat da, eta umeen begiradatik aztertzen dira gure

gizarteko gaurkotasuneko hainbat gai. Beraz, umeek irakurri dezaketekomiki bat da, baina helduentzat ere interesekoa izan daitekeena. Istorio guztietan dago atzealde bat, gizarte kritikara bideratutako zati bat.

**Ariketa polita da umeen begiradatik aritzea?** Nagusien munduko ustelkeria eta mafia umeen mundura ekartzea da lan honen oinarria. Eta bai, umeen begiradatik aritzea gozamen handia da, ahalbidetzen

dizulako gauza agerikoak modu gardenean esatea, gizartean darabiltzagun eufemismoak, gezurrak eta estalkiak alboratuta. Mafaldak ere horixe egiten zuten. *Haur Besoetakoa* izenburua aita-bitxi edo anaia handia berbeekin egindako hitz jokoa da.

**Bertsolariak bezala, sintesi ahalmena behar al du komikilaria?** Bi mundu dira bertsogintza eta komikigintza, baina egia da badutela zelanbaiteko antzik, eta bertsotarako eskarmentuak laguntzen duela batez ere istorio laburrak sortzerakoan: neurri bat ematen dizutenean, amaiera bat pentsatu behar duzu, logika bat eta indar bat duena, eta ondoren abiapuntu on bat bilatu.

**Zure gidoia eta marrazkiak uztertzen dituen proiektua gauzatzeko irrikarik ez daukazu?** Nire umetako ametsa izan da egunen batean hori egin ahal izatea, baina marraztea bertso-tan egitea moduan dela uste dut: asko egin behar da ondo egiteko. Nik ez dut asko egin, eta ez daukat asko egiteko denborarik. Orain hasi naiz prentsan noizean behingo kolaborazioak egiten, baina badakit, sorkuntzako beste arlo batzuetan bezala, bizimodu gogorra dela komikigilearena: marraztea oso lan geldoa da, de-dikazio handia eskatzen duena.

## Erreferentzia zinematografikoak eta metaforak, gizarte kritikarako

Metaforen bitartez, gaurkotasuneko gaiez dihardute komikiaren egileek

Unai Iturriagak eta Alex Sanvik sortu duten hiri imajinarioaren jabe dira *Haur Besoetakoa* protagonista eta Lolita. Erdi bana gobernatzen dute hiria. “Gure gizartean gertatzen den bezala, *Haur Besoetakoa* komikiko fikzioan ere mafiaburuen aurrean daude politikariak, eta atzean daude enpresariak, merkatua, droga legal eta ilegalak...”, azaldu du komikiaren gidoia osatu duen Unai Iturriagak. Metaforen bitartez,

besteak beste, banku bihurturiko aurrezki kutxen afera eta alderdien finantziazio ilegala ere agertzen dira komikiko istorioetan. Bestalde, egilearen berbetan, erreferentzia zinematografikoz josita dago *Haur Besoetakoa*: *Reservoir Dogs*, *Tarantino*, *The Godfather*...

Laster argitaratuko duten *Xabiroi* aldizkariari dagokionez, *Haur Besoetakoa* saila amaitu dela dirudiela aurreratu digu Unai Iturriagak. Ikus-

teko dago, beraz, sailak jarraituenik izango duen. Baina Alex Sanvigaz elkarlanean jarraituko duela esan du Iturriagak.

Dani Fanok *Xabiroi* aldizkari-rako gidoiak idaztea proposatu zionean, bere-berea duen eta umetatik gustuko izan duen mundu batera bueltatu zela kontatu du Unai Iturriagak. Horri esker bueltatu zela garai batean alboratu zuen zaletasunera: komikiak pentsatu, idatzi eta marrazteko lanera.



Komikiaren azala.

**Barbaz****Miren Zamakona** | Avifes elkarteko batzordekidea | Durango, 1948**“Gaixotasun mentala duten pertsoneri laguntzeko informatu egin behar da”**

Avifes elkarteak eguneko zentroa zabaldu du Muruetatorren; elkarteko batzordekidea da Zamakona



**> BERBAZ** Jone Guenetxea Avifes gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen Bizkaiko elkarteak eguneko egoitza zabaldu du Muruetatorren. Zornotzako Nafarroa zentroko lokala txiki gelditu zitzaizen elkarteko kideei, eta Durangora lekualdatu dira. Antolatzen dituzten ekintzek buruko gaitzak dituzten pertsonen autonomia eta bizi kalitatea indartzea dute helburu. Miren Zamakona Avifes elkarteko batzordekidea da. Hamasei urte daramatza elkartean.

**Zelan ezagutu zenuen Avifes?** Orain hamasei urte ezagutu nuen elkartea. Orduan hasi zen nire semea arazoekin. Hasieran argi nuen laguntasuna behar nuela. Diagnostika nahiko berandu ematen dizute. Medikuek ere ez dute jakiten zer den. Sei hilabetera esaten dizute. Momentu horretan mundua gainera jausten zaizu. Hala ere, garrantzitsua da gaixotasuna ezagutzeko, gero lagundu ahal izateko.

**Elkartera zelan jo zenuen?** *Orrialde horiak* liburuxka begiratu nuen. Antsietatea nuen. Ez nuen gaixotasuna ulertzen. Ez dakit ondo azaltzen ez zidaten edo ni nintzen ulertzeko prest ez zegoena. Orduan, Avifes elkarteak ezagutu nuen.

**Zein da elkartearen helburua?** Gaixotasun mentalak dituzten pertsoneri eta beraien familiei bizitza osoan babes profesionala ematea. Gaixoak ahalik eta autonomoen izatea, bizi kalitatea izatea eta gizartean integratzea da helburua.

**Zelan eman zenituen lehenengo pausoak elkartean?** Elkartean oso informazio zabala eman zidaten. Izan ere, orientazioan ere badabilta.

**Zer arlotan zabilzate lanean?** Urtero familia-eskola antolatzen dugu, eta urte bitartean sartzen direnentzat aurre-eskola dugu. Birziklapena ere egin dezakezu, eta tailer zehatzak ere bai.

**Zer baliabide duzue?** Besteak beste, zazpi eguneko zentro eta tutoretzapeko hamahiru pisu ditugu. Gainera, Etxebest programa ere badugu, beraien etxean bizi diren eta autonomia handiagoa duten pertsoneri zuzenduta. Bisitak egiten dizkiete etxera, eta behar dutenean babesa jasotzen dute.

**Gazteei zuzendutako programak ere badituzue.** Gazte Hori programa 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Aisialdirako egitasmoak ere baditugu. Orain, Gorantza kirol elkarteak sortu dugu. Aurreraka proiektua, berriz, 25 urtetik gorakoentzat da. Era berean, pertsona batzuei ez zaie eguneko zentrorara joatea gustatzen, baina, hala ere, astean behin batzen dira, beraien egoeran dauden beste pertsona batzuekin hartu-eman izateko. Gauza ugari antolatzen dituzte, gainera. Esate baterako, batzuek Donejakue bidea egin izan dute, eta beste batzuek antzerki talde bat sortu gura dute.

**“Hasi dira lokal berria erabiltzen, eta oso pozik daude. Oso leku onean kokatuta dago”**

**Emakumeei dagokien arloari bultzada eman diozue.** Arlo hori aspalditik dabil martxan. Gaixotasun mentalaren arloan, emakumeek estigma bikoitza dute, emakumeak izatearren eta gaixotasuna izatearren. Sarritan emakumeak etxeko lanak egiten gelditzen dira, eta ez dira hainbeste irteten. Espazio honetan emakumeak biltzen dira, beraien ardurez hitz egiteko.

**Buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzat, familiak zelako garrantzia dauka?** Familia babes eta zutabe garrantzitsua da. Horregatik, fa-

milia informatu egin behar da. Informatu ezean, sarritan pentsa dezakezu alferrak direla. Motibazio eta kontzentrazio falta dutela. Hori guztia gaixotasunaren eta medikazioaren ondorio izan daiteke. Beraz, oinarritzakoa da informatzea pertsoneri laguntza eskaintzeko.

**Gaixotasun mentala duten pertsonak estigmatizatuta daude gure gizartean?**

Bai, badaude. Hala ere, apurka-apurka aldatzen doa. Elkarteak ere ildo horretatik lan handia du egiteko. Ezjakintasunak sortzen du estigma hori. Gaixotasuna ezagutu gabe, pertsona biolentoak eta arriskutsuak direla eman dezake, baina faltsua da uste hori. Alderantziz, sarritan beraiek dira gizartearen mehatxuak jasan ditzaketenak.

**Sentsibilizazio aldetik, elkarteak zein lan egiten du?**

Institutuetako 15 urteko gazteei zuzendutako tailerrak eskaintzen ditugu gaixotasun mentala zer den ezagutzeko. Gazteek egiten dituzten galderengatik oso interesgarria da.

**Durangon eguneko egoitza zabaldu duzue. Aurrerapausoa izan da?**

Egoitza hori Zornotzatik dator. Nafarroa zentroan udalak utzitako lokal batean egon gara. Gela bakarra genuen, eta espazio gutxi zegoen. Leku gehiago gura genuen. Han 22 pertsona zebiltzan. Udalak ezin zigun lokal handiagorik utzi, eta pentsatu genuen lehen Emakumearen Sustapenerako Zentroa zegoen lekua egokia izan zitekeela. BBKrena zen lokala, eta utzi egin digute. Espazio gehiago dugunez, 32 plaza izango ditugu.

**Erabiltzaileak pozik daude egoitza berrian?**

Hasi dira lokal berria erabiltzen eta oso pozik daude. Oso leku onean kokatuta dago.

**Duela urte asko gaixotasun mentalak ezkutatu egiten ziren. Gaur egun, gizartean integratzea da helburua.**

Oraindik ere ezkututzen duen jendea badago. Hasieran izaten da hori, kaltegarria dela konturatu arte. Geroz eta autonomoagoak eta independenteagoak izan, hobeto. Sarritan etxean asko babesten ditugu. Avifesen ikusten gabilta tutoretzapeko pisuetan pertsonak askoz autonomoagoak direla. Gauza asko egiten ikasten dute, ondoren beraien pisuetan bizitzeko.



## Zilarberritzen

# ...eta urte ASKOTARAKO!

DIRU EKARPEN ETA BORONDATEZKO LAN KANPAINA

Plateruenak hamar urte betetzen ditu udazken honetan. Sasoi seinalatu eta aldakorrotan, urteurren osoa daramagu zilarberritzen: Durangaldeko sortzaile eta elkarteekin kultur egitasmoaz gogoetatu dugu, eta herri-eragileen parte hartzea hobetzeko lantaldeak sortu; Durangoko Udalarekin ere partekatu dugu hausnarketa hori, kulturgunearen kudeaketa bideragarria izan dadin baldintza hobek adosteko. Orain herritar guztiei dei egin gura dizuegu Plateruenean parte hartu dezazuen, kultur egitasmoak gauzatzeko borondatezko lanean jardunez zein kulturgunearen etorkizuna ziurtatzeko diru ekarpena eginez.

1 • **ZERGATIK?**

Azpiegitura eraikitzeko milioi eta erdi euroko zorra hartu genuelako gure gain, eta bankuei oraindik 250.000 euro itzuli beharrak bideragarritasuna kolokan jartzen duelako.

2 • **ZERTARAKO?**

Ostalaritza zerbitzuarekin batera, bideragarria den Plateruenearen eguneroko kultur jarduera oparoarekin jarraitzeko, elkarte eta sortzaileekin batera.

3 • **ZENBAT?**

Urtean 50.000 euro ziurtatzeko besteko laguntza eskatzen dugu, zorra bost urtean ordaintzeko; baita egun eta ekintza jakinetan boluntario jardutea ere.

4 • **NOIZ?**

Kuota ordaintzeko konpromisoa bost urtekoa izango da, 2015ean hasi, eta 2019ra arte; bideragarritasuna ziurtatzeko beste kuota 2014 amaierarako lortu gura dugu.

5 • **NON?**

Webgunean argibideak jarraituz, eskuorriko kupoia bete eta Plateruenean utziz, edo aurrez aurreko arretabulegoan (*Plateruenean, aste barruan, 11:00-13:00 / 18:00-20:00*).

6 • **NOLA?**A 

EKARPENA **60 euro** urteko, bost urtean.

HOBARIAK 2 menu txartel + ikuskizunetarako 2 sarrera.

\*Kooperatibako bazkide lehen urtetik.

B 

EKARPENA **120 euro** urteko, bost urtean.

HOBARIAK 4 menu txartel + ikuskizunetarako 4 sarrera.

\*Kooperatibako bazkide lehen urtetik.

D 

EKARPENA **5 boluntario** egun urteko.

HOBARIAK 2 menu txartel + ikuskizunetarako 2 sarrera.

IZENA

1. ABIZENA

2. ABIZENA

TELEFONO ZENBAKIA

KONTU ZENBAKIA BIC

IBAN

HELBIDEA

PORTALA

PISUA

HERRIA

E-POSTA

SINADURA

Baimena ematen diot Plateruena Kafe Antzokia Koop. E.ri (F95220919), goian adierazitako kopuru eta epeetan kuota kobratu diezadan

## ESKERRIK ASKO!



**Xabier Etxeita** | Athletic futbol taldeko jokalaria | Zornotza, 1987

# “Aspaldi eduki ez ditudan sentsazioak edukitzen nabil”

Jokatzeko aukera lortu du Athleticen atzelariak, eta, gainera, hiru puntu balio dituen gol bat sartu du



**> FUTBOLA** Markel Onaindia Cartagenan eta Elxen jokatu ostean, Athleticera itzuli zen iaz Xabier Etxeita. Orain arte aukera gutxi izan ditu jokatzeko, baina ondo aprobeztatu ditu izandakoak; tartean Almeria garaitzeko gola sartu du. Bizimodu normala egiten saiatzen da, baina solasaldiaren erdian andre bat etorri zaio zoriontzera. Zorioneko dago, gainera, gaur delako bere urteguna.

**Zorionak Xabier. Opari polita azken bolada on hau, ezta?** Bai. Ez jokatzetik segidan partidu bi jokatzera igaro, Txapeldunen Ligan debutatu, eta Almeriaren kontra hain garrantzitsuak ziren hiru puntuak lortzeko gola sartu izana pozik egotekoa da. Aspaldi eduki ez ditudan sentsazioak ditut. Aurtun gehiago sartu naiz entrenatzailearen planetan, eta erosoago sentitzen naiz. Gola ere konfiantza eman dit.

**Valverde berak ere babestu zaitu prentsaren aurrean.** Egia esateko, eskertzekoa da. Nire lana baloratzen duela ikustea garrantzitsua da.

**Almeriari irabazi ostean, zelan ikusten duzu taldea?**

Uste dut Almeriaren aurkako partidua ezin dela baloratu partidu normal bat balitz bezala. Ez genuen egin normalean egiten dugun jokoa, emaitzagatik oso estutu eta egon ginen eta. Taldean normala ez den antsietate puntu bat igartzen zitzaigun. Espero dut partidu horrek inflexio puntu legez balio izana, gure jokoa berreskuratu, eta emaitza onekin astiro-astiro gorantz joateko.

**Napoliren kontrako kanporaketa eta gero, zer gertatu da?** Berba asko egin da horretaz. Guretzat oso garrantzitsua izan zen kanporaketa hori pasa izana; denboraldi-aurre osoa hori prestatzen igaro genuen. Oso lorpen garrantzitsua izan zen, eta ematen du taldea hustu egin dela. Gero, aste batzuetan bi partidu jokatu, nik uste ez ditugula ondo prestatu psikologikoki. Fisikoki ondo egon gara, baina, beharbada, ez gara kapaz izan aste berean partidu biri aurre egiteko. Gainera, partidu bat galtzen duzunean, konfiantza beherantz dator, ez diozu berdin aurre egiten hurrengo neurketari... Futbola mundu bat da, eta gauza askok dute eragina. Gerdialdiaren ostean erreflexio bat egin dugu, eta nik uste dut hor

irten ahal garela dekadentziatik. Taldea bada kapaz, eta, gainera, gure taldearen ikur bat lana da.

**Txapeldunen Ligan, gutxi izan arren, badaukazue aukerarik. Zer esperantza daukazu?** Denboraldi oso baten sari bat da, Europako txapelketa onena jokatzeko gaude eta. Badakigu hurrengo fasera sailkatzea oso gaitza izango dela, baina partidu guztiak %100ean jokatuko ditugu. Ezin badugu sartu, ea Europa Leaguera sailkatzeko hirugarren postua lortzen dugun. Ez litzateke emaitza txarra izango.

**Txapeldunen Ligako debuta zelan?** Atera kontuak: orain dela urte bi Bigarren Mailan nengoan. Anekdotak legez, partidua baino lehen Mikel Ricogaz egon nintzen, eta esan zidan: “Gogoratzen duzu orain hiru urte Bigarren Mailan elkarren kontra jokatu genuela? Orain Athleticen gaude, Txapeldunen Liga jokatzeko!” Nire ilusia beti izan da Athleticen jokatzeko, eta hona etorri izana lan askoren emaitza izan da.

**Ligan, Sevilla dator domekan.** Partidu gogorra izango da; oso momentu onean dago. Denbora

asko da ez dugula San Mamesen irabazi, eta etxean irabaztea garrantzitsua da guretzat.

**Amorebietan hasi zinen futbole. Jarraitzen duzu taldea?** Emaitzak astebururo ikusten ditut. Zaila egiten zait Urritxera joatea, baina duela aste bi egon nintzen, adibidez. Handik irten naiz, bizi osoa egon naiz bertan, eta bertan debutatu nuen hamasei urtegar Hirugarren Mailan. Hortik eman nuen Bilbao Athleticarako saltoa, eta gero Athleticera. Beti baloratuko dut taldea.

**Herriko saskibaloi taldea ere jarraitzen duzula entzun dut.** Bai! Batez ere giroa gustatzen zait, eta oso entretenigarria da. Lagun asko joaten gara ikustera. Domeka eguerdian izaten da, eta joateko aukera gehiago edukitzen dut.

**Eliteko futbolari batek bizimodu arrunta egitea ez da ohikoa.** Nik ezin dut egin nire kuadrillakoen bizimodu bera, baina saiatzen gara gure gauzak egiten. Duela aste bi, Zornotzatik ibili eta inor ez zen ohartzen; orain, leku askotan agertzen naizenez, desberdina da. Baina normaltasunez hartzen dut.

**AGENDA****> FUTBOLA****BIGARREN B MAILA**

**Amorebieta - Real Unión**  
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)****Ezkurdi - Astrabuduako**

· Zapatuan, 17:00etan, Arripausetan.

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)****Elorrio - Iurretako**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

**BIGARREN ERREGIONALA****Iurretako B - Lekeitiño B**

· Zapatuan, 18:00etan, Berrizburun.

**HIRUGARREN ERREGIONALA****Zaldua B - Gernika Sporting B**

· Zapatuan, 15:30ean, Solobarrian.

**Elorrio B - Ermuko Anaitasuna**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

**> SASKIBALOA****LEHEN ERREGIONAL BEREZIA****Zornotza - Unamuno**

· Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)****Zornotza 2 - Barrena Berri**

· Domekan, 18:00etan, Ixerbekoan.

**LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)****Zornotza - Ugeraga Sopela**

· Domekan, 10:00etan, Ixerbekoan.

**Julza-Zaldua - Mungia**

· Zapatuan, 17:30ean,

Zaldibarko kiroldegian.

**BIGARREN ERREGIONALA****Zornotza 2 - Tabirako Baqué**

· Domekan, 12:00etan, Ixerbekoan.

**> ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Elorrioko Buskantza - Meatzari**

· Domekan, 12:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian.

**EUSKAL LIGA****Mallabia - Uxoa**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA****Presion Break B - Mazusberri**

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

**Abadiñoako Gaztetxe - Beseka**

· Zapatuan, 17:00etan,

Traña-Matienako kiroldegian.

**> ESKUBALOA****EMAKUMEEN LIGA****Ibaizabal - Urduliz**

· Zapatuan, 12:00etan, Landakon.

**> PILOTA****OLAZAR TXAPELKETA****Lau Ƴerdian:****- Mendi / Arabio****Binaka:****- Urbietako-Erostarbe /****Dorronsoro-Pérez**

· Azaroaren 6an, 21:30ean,

Zaldibarko pilotalekuan.

# Igoera fasera sailkatzea helburu dutela, derbia jokatu dute bihar Elorriok eta Iurretakok

Iazko denboraldiko igoera fasean elkarren kontra jokatu dute derbi biak berdinketaz amaitu ziren

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Durangaldean emakumeen futboleko ordezkariak osatzen duten Elorrio eta Iurreta derbian neurtuko dira bihar, 16:00etan, Elorrioko Eleizalde futbol zelaietan. Ligako hiru jardunaldi bakarrik joan dira orain arte, baina talde biek iazko denboraldi onak errepikatzea dute helburu: lehen faseko bost onenen artean sailkatzea, igoera fasea jokatzeko eta mailako talderik onenen aurka lehiatzea.

Elorrioko entrenatzaile Gonzal Aranek derbi "parekatua" aurreikusi du biharko: "Derbiak partidu biziak eta itxiak izaten dira normalean".

Elorriok, oro har, iazko blokeari eusten dio. Hiru jokalarik joan eta bost berri heldu dira; guztira, 21 jokalarik osatzen dute taldea. Orain arte partidu bi jokatu dituzte –lehen jardunaldian atseden hartzea egokitu zitzaizkien– eta bietan berdindu egin dute. Hasiera ona da, aurkariak mailako talderik indartsuenetakoak izan direla kontuan hartuz gero. Esaterako, joan zen asteburuan, lider zegoen Mungiaren zelaia bisitatu, eta bana berdindu zuten, Itsasne Larruskain zelai erdiko jokalariren golari esker.

Bestalde, emakumeen futbolariek aurrerapauso garrantzitsu bat eman du aurten, Elorrioren. Elorrio Kirol Taldeak gazte mailako taldea sortu du hamalau jokalarigaz, eta Jabi Díez da entrenatzailea. Etorkizunean maila gehiagotan taldeak ateratzea da asmoa: "Oso albiste ona da. Orain arte kanpoko taldeetako jokalariek ekarri behar izan ditugu. Etorkizunari begira, etxean gazteen talde bat izatea oso garrantzitsua da guretzat".

**Min hartutako asko Iurretan** Iurretakok hemeretzi jokalarik ditu aurten, eta horietako bost berriak dira. Taldea utzi duten sei jokalariek futbola utzi dute, eta taldera heldu direnek, aurretik futboleko aritu arren, denbora batean utzita izan dute futbola. Jokalari horiek esperientzia emango diote taldeari, baina taldearen dinamikan sartzen ari dira oraindik. Gauzak horrela, "berriro hasieratik hasi behar da", Jon Gallego entrenatzailearen esanetan.

Gainera, min hartuta daude hainbat jokalarik biharko derbiari begira: "Hiru-lau min hartuta ditugu, eta hiruk jokalarik oraindik fitxa barik daude". Hori gutxi balitz, joan zen asteburuan,



Goian Elorrioko taldea; behean, Iurretakoko jokalariek.



Derioren kontra etxean jokatu dute partiduan epaileak jokalarik bi egotzi zituen, eta ezin izango dute bihar jokatu.

Beraz, biharko "partidu gaitza" izango dela uste du Ga-

llegok: "Baina borrokatzeko prest gaude". Orain arte, hiruk partidu jokatu, eta bat irabazi dute: Larrakozelaietan 6-0 jipoitu zuten Bermeo, ligako bigarren jardunaldian.

## Pronostikoak hautsi, eta Inhar Ugarte txapelaren Tornosolo Kopan

### > PILOTA

Sopelako Kurene pilota elkarteko pilotariek eraman dituzte Tornosolo Kopako txapel biak: Inhar Ugarte algortarrak elite mailakoa eta Iker Gordon sopolotarrak promesen mailakoa.

Joan zen domekan, Abadiñoako trinketearen jokatu zituzten finalak, eta Ugartek pronostikoak hautsi zituen, Ander Antxia faboritoari irabazita: 40-32. Antxia jokoa nahasten saiatu zen, erritmo bizia jarritzen, aurkaria itoazten, partidua indarrez apurtzen... baina ezin. Ugartek, kolpe gutxiago izan arren, bikain eutsi zion abadiñoarrari, eta merezimendu osoz jantzi zuen txapela. Sakeak ere lagundu zion: hamahiru tanto egin zituen sakez.

Aipatzekoa da promesen mailako Iker Gordonen garai-pena ere (40-24). Faborito zen, baina hori erakutsi beharra egoten da, eta horrela egin zuen Joseba Bilbaoren aurka.

## Txirrindularitzan berdintasuna eskatu dute emakumeek

### > TXIRRINDULARITZA

"Nekatuta gaude emakumeen kirolean betetzen dugun paperagaz, eta gauzak aldatzeko sasoia dela uste dugu". Esaldi horregaz hasten da emakumezko txirrindulari askok sinatu, eta Bizkaiko Txirrindularitza Federazioari bidali duten idatzia. Audioko zirkulokros proban protestak hasiko dituztela diote, eta Bizkaiko Federazioaren laguntza izatea espero dutela. 25 txirrindularik sinatu dute idatzia, baina atzetik gehiago daudela diote. Sinatu dutenen artean daude Naia Alzola, Ziortza Isasi eta Aroa Gorostiza. Espainiako Federazioko lasterketa batean banatutako sariak jartzen dituzte adibidetzat. Gizonen artean 2.585 euro banatu ziren, eta emakumeen artean 748 euro: "Berdin ordaintzen ditugu lizentziak, gastuak... baina gero ez dugu tratatu bera jasotzen, eta ez ditugu eskubide berak".

## Burgos xehatu, eta lider jarri dira DRTko gizonak

Lehen minututik azkenera gehiago izan ziren: 39-8

### > ERRUGBIA

Liga hasiera bikaina osatzen ari da Durango Rugby Taldea gizonetan. Joan zen asteburuan, Arripausuetan, 39-8 jipoitu zuen ordura arte lider zen Burgos. Orain, Durangoko taldea da lider: lau garaipen eta berdinketa bat. Zapatuan Oviedo izango du aurkari.

DRTk erritmo bizia markatu zuen hasiera-hasieratik. Laugarren minutua bete orduko lortu zuen lehen entsegua; ondoren, beste sei etorriko ziren. Burgos bere mailatik behera aritu zen, DRTren presioak eta indarrak kokildu balute bezala. Partidu osoan DRTren defentsa sistema apurto ezinik ibili zen.

## García eta Bizkarra Murias taldean ibiliko dira

Kontinental mailako Murias taldera batu dira

### > TXIRRINDULARITZA

Jon Odriozola sustatzaile eta zuzendari duen Kontinental mailako Murias talde euskaldunak sortu berriagaz ariko dira datorren denboraldian Egoitz García (Atxondo, 1987) eta Mi-

kel Bizkarra (Mañaria, 1989). Txirrindulari biak lehengusuak dira, eta lehenengoz bat egingo dute talde berean.

García Cofidis taldeagaz aritu da aurten, baina abuztu hasieran esan zituen ez zegoela

## ADITUAREN TXOKOA



**Unai Zamalloa**

Saskibaloia

### Eskola kirola: gaztetxoek hastear

Datorren azaroaren 8an eskola kiroleko talde guztiak hasiko dira lehiatzen. Irailean hasi ziren entrenatzen, eta badago gogoia eta nahia partiduak jokatzeko hasteko.

Badira hainbat talde gure eskualdean, eta saskibaloia finkatzen dabil; nahiz eta, aurretik hausnartu eta esan bezala, talde gehientsuenak neskenak diren, eta mutilen partaidetza gure kirolean gero eta urriagoa den. Hala ere, talde handiak ditugu (Zornotza Saskibaloia Taldea, Tabirako Baqué, Bilbao Basket, Baskonia...), eta horiei esker partaidetza handiagoa landu eta sortu beharko litzateke.

Denboraldi-aurrea luze egiten da, irailean hasi baitziren talde guztiak entrenatzen. Horrek lagunarteko partidu ugari dakartza. Horregatik, ikastetxeen arteko partidu asko jokatu dira. Hausnartu beharrekoa da, benetan, urtero eskola kirolaren hasiera beranduago izatea.

Beraz, gogoz itxaroten gaudena hastear dagoen honetan, gogoratu dezagun saskibaloia gozatzen, lantzen eta ikasten ari garela, eta horregatik disfrutatu eta talde osoa animatu behar dugula. Epaile lanetan arituko diren aipamena ere egin gura dut, horiek guztiak gabe ezin delako aurrera egin.

Bukatzeko, entrenatzaileei indarra eta eskerrak eman nahi dizkiet. Beraiek barik, denak boluntario, ez legoke ezer. Bakoitzari dago-kiona eman behar zaio.

Aupa saskibaloia! Denboraldi ona izan!

hurrengo denboraldirako aukeratu artean. Jon Odriozolak egindako eskaintza "ilusioz" hartu duela onartu du: "Etxeko taldea da, eta proiektu interesgarria iruditzen zait".

Bizkarra profesionaletarantz itzuliko da berriro, urtebete amateurretako Gomur taldean egin ondoren. Gomurregaz lau garaipen lortu ditu, eta oso maila ona eskaini du: "Orain astebe-te egin zidaten eskaintza, eta oso pozik nago".



# JATETXE GIDA

**ÑAM!**

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
**bikoteko**  
(BEZa barne)

**ÑAM!**

## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.

75 lagunentzako jangela.



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.

Taldeentzako menu adostuak. Askariak.


**ÑAM!**

## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**ÑAM!**

## LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)**ÑAM!**

## IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA  
[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)

Tel.: 946 731 100

- Egunero zabalik.
- Gure upategian egindako sagardoa.
- Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi personarentzako menua zozkatuko dugu

**Carmelo Irastorza zein herritako alkate izan zen?**

ERANTZUNA: [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) helbide elektronikora edo ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta  
Aurreko zozketako irabazlea: **Mercedes Soler**, zorionak!

**ZORTE ON!**







# Denborapasak

## > ZORION AGURRAK

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzteneko 14:00ak arteko epea

1

	9	7	1	2			
				7			9
3	6						
				9	2		1
			6	1			4
5			7				
	2				8	5	
	1	4				2	
			3			4	

2

5			4	8			
6		1	2			5	
	9		5			1	2
			1	5			
8		4	3		6		
	1				9		
2	3	7		4			
	4		8	3			
						3	7



> Zorionak, guapa! Neskatilarik politenari, musu handi-handi bat. Ondo-ondo pasatu zure urteguna!



> Atzo **Bidartek** 5 urte bete ebazan. Ijorretako Helenek, Urkok eta famili guztiak ospatu eben urteguna: kandelak isiotu genituen, txokolatex ase ginen eta *Zorionak* kantatu genuen.



> Zorionak **Uxue!** Begirada horregaz etxeko danak sorgintzen jarraitu aurrerantzien be! Ta martitzenien belarriek zaindu, Anartz gogotsu dau ta!



> Zorionak hirukote, eta patxo potolo handi bat amaxoren partez.



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

## > BOTIKAK

### BARIKUA, 31 - 09:00-09:00

• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango) 09:00-22:00

• **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00

• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)

### ZAPATUA, 1 - 09:00-09:00

• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango) 09:00-22:00

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00

• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)

### DOMEKA, 2 - 09:00-09:00

• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango) 09:00-22:00

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 22:00-09:00

• **Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier** (Txiki Otaegi 3 - Zornotza)

### ASTELEHENA, 3 - 09:00-09:00

• **De Diego** (Intxaurrenondo 22 - Durango)

• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00

• **Egaña** (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

### MARTITZENA, 4 - 09:00-09:00

• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)

• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

### EGUAZTENA, 5 - 09:00-09:00

• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)

• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

### EGUENA, 6 - 09:00-09:00

• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)

• **Guarrotxena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00

• **Bengoa** (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

## > TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
Ertzaintza ..... **94 466 93 00**

## > GARRAIOAK

Euskotren ..... **902 54 32 10**  
Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
Pesa ..... **902 10 12 10**  
Continental Auto ..... **945 286 466**

## > TAXIAK

Abadiño ..... **94 681 44 70**  
Matiena ..... **606 459 988**  
Durango Geltokia ..... **94 681 10 01**  
Elorrio Geltokia ..... **94 682 00 40**  
J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
I. Estebez ..... **670 678 273**  
M. Galeano ..... **670 409 330**  
Iurreta ..... **94 682 02 18**  
Taxi auzunea ..... **688 618 690**  
Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

## > UDALAK

Abadiño ..... **94 621 55 30**  
Atxondo ..... **94 682 10 09**  
Berriz ..... **94 682 45 84**  
Durango ..... **94603 00 00**  
Elorrio ..... **94 658 27 12**  
Garai ..... **94 681 63 93**  
Iurreta ..... **94 620 12 00**  
Izurtza ..... **94 681 35 48**  
Mallabia ..... **943 17 14 61**  
Mañaria ..... **94 681 89 98**  
Otxandio ..... **945 45 00 20**  
Zaldibar ..... **94 682 70 16**

## > UDALTZAINGOA

Abadiño ..... **94 621 55 33**  
Berriz ..... **94 682 40 36**  
Durango ..... **94 603 00 00**  
Elorrio ..... **94 682 02 18**  
Iurreta ..... **94 620 08 88**

12° **27°** ZAPATUA 

13° **25°** DOMEKA 

7° **19°** ASTELEHENA 

7° **14°** MARTITZENA 

## SUDOKUEN SOLUZIOAK

7	3	4	2	5	6	9	8	1
6	9	1	7	3	8	5	4	6
8	6	5	1	4	9	7	3	2
5	8	6	4	9	7	2	1	3
1	7	9	6	2	3	4	5	8
3	4	2	5	8	1	6	9	7
2	1	3	9	7	5	8	6	4
4	5	8	3	6	2	1	7	9
9	6	7	8	1	4	3	2	5

2

7	4	1	8	2	3	6	5	9
3	2	6	9	5	7	4	1	8
9	5	8	4	1	6	2	3	7
8	6	9	3	7	2	1	4	5
4	3	5	1	6	8	9	7	2
1	7	2	6	4	5	3	8	9
2	1	7	5	9	4	8	6	3
9	8	4	7	3	6	5	2	1
5	6	3	2	8	1	7	4	9

1

## “Herritar guztiek pasatu beharko lukete alkatetza kargutik, zer den ezagutzeko”

Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatutako alkate izan zen 1991tik 1995era

**> AKUILUA** Jone Guenetxea Izurtza barru-barrutik eza-gutzen du Carmelo Irastorzak. Alkate izan zen legegintzaldi batez, Izurtzako Herritarrok alderdiaren buru. Politikagintzak oroitzen onak utzi dizkiola aitortzen du. Orain, jubilatuen elkarteko presidentea da.

**Zenbat urtean izan zinen Izurtzako alkate?**  
Legegintzaldi batean izan nintzen alkate, 1991tik 1995era.

**Zelako esperientzia izan zen?**  
Sasoi polita izan zen alkatetzan igarotakoa. Uste dut herritar guztiek pasatu beharko luketela alkatetza kargutik, zer den ikusteko. Batzuen ustez, ondo egiten duzu, eta, beste batzuen ustez, ez hain ondo. Egin nuena-gaz pozik gelditu nintzen. Gainera, laguntzen zidaten pertsonak izan nituen aldamenean. Juan Luis Azkarraga, esate baterako.

**Alderdi independentea sortu zenuten.**  
Izurtzako Herritarrok zuen izena. Gure taldea, gehienbat, jubilatuen etxea dagoen eraikina bultzatzeko sortu genuen. Herriko jendea elkartzeko topagune bat sortzea zen asmoa. Aurreko gobernu taldeak gazteentzako zer edo zer egin nahi izan zuen, baina guk gazteentzako eta nagusientzako lekua sortu gura genuen. Sasoi hartan eraikin hau egitearen kontra bozkatu zutenak, gaur egun, elkartean egoten dira.



**Ondoren, politikan jarraitu zenuen, baina ezker abertzalean. Aldaketa hori zelan bizi izan zenuen?**  
Hurrengo legegintzaldi biak oposizioan egin nituen. Elkarrearen eraikina egitea lortu genuenean, alderdi independentea desegin egin genuen. Jendea aspertu egin zen. Orduan, oposizioa pasatu nintzen.

**Herri txiki batean alkate izateak izango ditu bere zailtasunak.**  
Jendeak kalean topatzen zaitu, eta edozer gauzagaz etortzen zaizu. Pilar Ardanza zen sasoi hartan Durangoko alkatea, eta zera pentsatzen nuen: “Sekula ez dut inor Pilar gelditzen ikusten”.

**Familiak zelan bizi zuen zu alkate izatea?**  
Etxean udaleko gaiak alde batera uzteko esaten nien. Galde-tu ere ez zidaten egiten.

**Politikan gustura ibili zinen?**  
Diputaziora joaten ginen, eta baietz esaten ziguten, eta gero ezetz. Horrela ibiltzen ginen. Gure artean, baina, ez genuen haserrik izan. Amankomunagoko beste alkateekin ere beti ondo konpondu izan naiz. EAJko batek esan zidan behin nigaz bere alderdikoekin baino hobeto konpontzen zela [barruz].

**Jubilatuen elkarteko presidentea zara orain.**  
Urte bi izaten dira karguan, eta urtebete daramat oraingo. Ondo gabiltza, ez da arazorik izaten.

**Zenbat jubilatutako zere elkarrean?**  
28 jubilatutako dihardugu, eta horietatik zazpi-zortzi gara gizonetakoak. Eta gazteena gaur naiz. Gaur egun jende asko dago erretiroa aurreratuta edo erretiratuta, gazteak dira, eta elkarrean sartu beharko lukete. Dei egin gura nieke beraiek ere elkarrean parte hartu dezaten.

**Urtean barrena zelako ekintzak antolatzen dituzue?**  
Astean behin gimnasia antolatzen dugu. Hainbat hitzaldi ere izaten ditugu. Eta urtean bazkari bi ditugu.

**Izurtzan zer aldatuko zenuke?**  
Errepideari buruzko proiektua. Errepidea erreka ostetik pasatuko nuke. Egitasmo hori hainbat gobernu taldek bultzatu dute, baina onartu behar dutenek ez dute onartzen. Orain kamioi handiagoei Urkiolatik pasatzeko baimena eman diete, eta trafikoa iguera nabaritu dugu.

**Zure osteko alkateek ondo jardun dute?**  
Bai. Inguru honetan guk etxebizitza sozialak planteatu genituen, eta beraiek txaletak eraiki gura zituzten. Ez dut beste kezarik. Txaletak eraikiz gero, jendea lo egitera baino ez da etortzen, batzuk herrira egin diren arren. Gazte asko kanpora joan dira bizitzera.

**Politikari izan aurretik kirolaria izan zinen.**  
Eskubaloian jokatu nuen Logroñon eta Zaragozan, lau urtez. Peritu-ikasketak Logroñon egin nituen.

### LAUHORTZA

**ARITZ MALDONADO**  
Kazetaria



#### #EtaUrteAskotarako!

Hamargarren urteurrenaren kariatz, Plateruenean bizitako momenturik onena zein izan dudana galdetu didate astea hasiarekin batera. Errenkadan etorri zaizkit oroitzenak, hasi inaugurazioko lehenbiziko zerbeztatik eta joan den asteko bazkarira arte. Zenbat ordu barraren ezkerretako trintxerak? Zenbat egunsenti kanpoko atetik irteteko beldurrez?

Guztia ez da parranda, baina. Hamarkada bakarrean mota guztietako ekitaldi-kontzertu-otordu-kantaldi-hitzaldietara hurbildu naiz (eta gara) bertara, eta durangarron (eta inguruko) bizitzen parte izatera iritsi da hiltegi zaharra; zuetako bakoitzak izango du bere pieza kutxatxoan gordeta, ziur.

EHko aretoen (bere garaian, Europa hegoaldeko esatera ausartuko nintzake) artean nabarmendu zen hasieratik, eta puntako taldeekin batera izerditu dut bertan. Lisabörekin, *Animalia lotsatuen putzua* aurkeztu zutenean, edo Anestesiaren *Terapiarekin*, bi bereiztearren. Memorian iltzatuak ditut, era berean, Edan talde handiarekin bertan eginiko *kadenetak*. Sarrerekin eginiko bildumara ere jo dut, baten bat ahaztu dudana beldurrez. Baghdadek ere bertan urratu zuen bidea lehenbizikoz.

Laguntzarako deia ere egin dute berriki, eta gaur 10. urteurren hori gogoraziko dugu, ekarpen kanpaina betean. Txakalaldiak ere igaro egin behar dira, eta hiltzen ez zaituenak indartsuago egiten zaitu. Gaitza zait urte hauetan bizitakotik une bakarrekin geratzea, eta argi dut, gainera, onenak bizitzeko ditudala/ditugula. Eutsi Plateruena, eta urte askotarako!

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!  
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

**anboto Lagunak**

**@** anboto@anboto.org

**☎** 946 816 558

**✉** Izen-deiturak \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_  
Posta kodea \_\_\_\_\_ Herria \_\_\_\_\_  
Telefonoa \_\_\_\_\_  
Anboto komunikabideak - DHK  
Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA

**PARTE HARTU GURE ZOZKETETAN!**

**hazi**  
LANDA, ITZASERTZ ETA ELIMAGAREN SUSTAPENA  
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

**EROSKI bidaiak**

Ametsetan? Egizu legan!

